




Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea

# Ariketa fisikoko esku-hartze desberdinen eragina hirugarren adineko egoitzetan bizi diren adinekoen funtzio fisiko zein kognitiboan eta afektibitate egoeran

Effect of different physical exercise interventions on the physical and cognitive function, and psycho-affective state of older adults living in long-term nursing homes



eman ta zabal zazu



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

MEDIKUNTZA ETA ERIZAINNTZA FAKULTATEA

FISIOLOGIA SAILA

**Ariketa fisikoko esku-hartze desberdinen eragina  
hirugarren adineko egoitzetan bizi diren  
adinekoen funtzio fisiko zein kognitiboan eta  
afektibitate egoeran**

Effect of different physical exercise interventions  
on the physical and cognitive function, and  
psycho-affective state of older adults living in  
long-term nursing homes

**Doktorego Tesia**

Chloe Rezola Pardo

**Zuzendariak**

Susana Gil Orozko

Ana Rodriguez Larrad

2020

**ageing  
on**  
UPV/EHU



## **ESKER ONAK / ACKNOWLEDGEMENTS**

Tesi honen atalik zailenatarikoa egin zait hurrengo lerroak idaztea, nondik hasi ere ez nekielarik. Jarraian, era zuzenean zein zeharka proiektu honen parte izan zareten guztioi eskerrak eman nahi nizkizuke. Aldez aurretik barkamena eskatzea gustatuko litzaidake norbait aipatzea ahaztu baldin badut.

Lehenik eta behin, mila esker Jon Irazusta katedraduna, orain dela bost urte tesia egiteko proposamena luzatzeko dei harengatik eta prozesu guztian zehar emandako laguntzagatik. Zuri esker hasi nuen bide luze, gogor baina aberasgarri hau eta hainbat profesional eta persona paregabeak ezagutzeaz gain, beste batzuekin birkonektatzeko aukera ere izan dut.

Bestetik, Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko Fisiologia Sailari eskerrak eman nahi nizkioke, tesia egiteko baimena emateagatik eta, honekin batera, Euskal Herriko Unibertsitateari, tesia egiteko emandako laguntza ekonomikoagatik.

Mila, mila esker nire zuzendariei, Susana Gil eta Ana Rodriguez, bide guztian zehar emandako laguntza guztiagatik, eta behar izan dudanean hor egoteagatik, izan goiz eguerdi edo arratsalde. Eskerrik asko Susana irakatsitako guztiagatik, hasiko dudanean bide honetan motxilan eramango baitut guztia nirekin. Eskerrik asko zuri ere Ana, hasieratik emandako laguntza guztiagatik, eta zure lehenengo galdera beti nola nagoen izateagatik. Zuek gabe proiektu hau ez litzateke posible izango eta ez nintzateke gaurko egunean tesia defendatzen egongo, mila esker bioi!

Eskerrik asko zuri ere Javi Yanguas, bide guztian zehar emandako konfidantza eta segurtasunagatik. Zure gertutasun eta positibotasuna oso lagungarriak izan zaizkit momentu zailenetan.

Eskerrik asko Fisiologia eta Erizaintza Saileko irakasle eta ikasle guztioi, emandako laguntza guztiagatik: Javi Gil, Fatima Ruiz, Idoia Zarrasquin, Maider Kortaxarena, Iraia Bidaurrezaga, Iratxe Duñabeitia, Jon Torres, Bego Sanz, Amaia Irazusta, Izaro Esain, Gotzone Hervás, Miriam Urquiza, Janire Virgala, Itsaso Mugica...

Bestalde, eskerrak eman nahi nizkieke egoitza guztietako langile, partaide zein haien senideei izandako prestutasun eta laguntza guztiagatik: Matia (Birmingham, Lamorous eta Rezola), Caser (Anaka eta Betharram), Zorroaga, DomusVi (Villa Sacramento eta Berra) eta Sanmarkosene. Eskerrik asko aukera polit hau emateagatik eta ikasitako guztiagatik!

Bestetik, lau urte hauetan zehar proiektu hau lankidetzan aurrera eramandako eta bulegokide eta lagun izan ditudan Matia Institutoko langileei eskerrak eman nahi nizkizueke. Eskerrik asko Miren Iturburu, Nerea Galdona, Mertxe Sánchez, Nerea Etxaniz, Nerea Almazán, Sandra Pinzón, Pura Diaz-Veiga, Judith Salazar, Miguel Leturia, Ainara Tomasena, Erkuden Aldaz eta Cristina Buiza.

Neurketa eta esku-hartzeetan lagundutako guztiei ere eskerrik asko, zuen laguntza ezinbestekoa izan baita proiektu hau aurrera eramateko. Mila esker Ainara Zamacola, Ariadna Vidán, Zuriñe Uranga, Itsaso Nabaskues, Mikel Mata, Idoia Gorroño, Nuria Marco, Garbiñe Lozano, Julen Gómez eta Amali Múgica.

Eskerrik asko, nola ez, zuei ere Haritz eta Iñaki, elkarrekin bizitako momentu on eta txarretan ere beti hor egoteagatik eta dei amaigabe guztiengatik. Ziur nago bide hau askoz ere gogorragoa izango litzatekela zuek alboan izan gabe, mila esker benetan!

Mila esker kuadrila (Zuriñe, Marta, Laura, Silvia eta Eider), Alaitz eta Onintza, deskonektatzen laguntzeko ahalmena izateagatik eta emandako animo guztiengatik!

Eskerrik asko familia, Ama, Aita eta Laura. Gracias por todo y por tanto; por preguntar “¿Qué tal va eso de la tesis?”, por entender que no siempre haya podido sacar el tiempo que me gustaría para estar con vosotros, por estar ahí siempre apoyándome incondicionalmente y creer en mi.

Eta azkenik, ezingo nuke atal hau amaitu Martin eta familiari (Itziar, Ramon, Maddi, Marcos eta Sara) emandako laguntza eta animoak eskertu gabe. Eskerrik asko Maddi eta Marcos tesiko azal politenarengatik.

Ez daukat hitzik nirengatik egiten duzun guztia eskertzeko Martin. Zu zara momentu txarretan amore ez ematearen arduradun eta onenetan berri onak partekatu nahi izan ditudan lehenengoa. Eskerrik asko niregan beti izan duzun konfidantzagatik eta zaren bezelakoa izateagatik.

*Ama, Aita, Laura eta Martin...*

*zuengatik*

*por vosotros*



**AURKIBIDEA**

**INDEX**





---

**AURKIBIDEA / INDEX**

<b>LABURPENA .....</b>	<b>13</b>
<b>LABURDURAK / ABBREVIATIONS .....</b>	<b>23</b>
<b>1 AURREKARI NAGUSIAK/BACKGROUND.....</b>	<b>27</b>
1.1 Gaur egungo demografia: Biztanleriaren zahartzea .....	27
1.2 Zahartze-prozesua eta bere ondorioak.....	29
1.3 Hirugarren adineko egoitzak eta egoiliarren ezaugarriak.....	30
1.4 Hauskortasuna .....	31
1.4.1 Hauskortasunaren kontzeptualizazioa.....	31
1.4.2 Hauskortasunaren antzematea.....	33
1.5 Hauskortasuna ekiditeko edo arintzeko ariketa fisikoko esku-hartzeak .....	38
1.5.1 Osagai anitzeko ariketa fisikoko esku-hartzeak .....	40
1.5.2 Dual-task (DT) esku-hartzeak .....	41
1.5.3 Oinez ibiltzeko esku-hartzeak .....	42
1.6 Aurkezten den tesiaren testuingurua .....	43
<b>2 HELBURUAK/OBJECTIVES .....</b>	<b>47</b>
<b>3 MATERIAL ETA METODOAK / MATERIALS AND METHODS.....</b>	<b>51</b>
3.1 Ikerketaren diseinua .....	51
3.2 Laginaren ezaugarriak.....	53
3.3 Balorazioak.....	55
3.3.1 Historia klinikotik ateratako aldagaiak.....	56
3.3.2 Antropometria .....	57
3.3.3 Odol analisiak.....	58
3.3.4 Egoera fisikoa.....	59
3.3.5 Dual-task ahalmena .....	74
3.3.6 Jarduera Fisikoa.....	76

3.3.7	Proba Neuropsikologikoak .....	78
3.3.8	Afektibitate egoera.....	85
3.3.9	Bizi kalitatea: Quality of Life Alzheimer´s Disease bizi-kalitate testa.....	86
3.3.10	Hauskortasuna .....	86
3.4	Esku-hartzeak .....	90
3.4.1	Osagai anitzeko ariketa fisikoko (AF) esku-hartzea.....	90
3.4.2	Dual-task esku-hartzea .....	104
3.4.3	Oinez ibiltzeko esku-hartzea .....	105
3.5	Analisi estatistikoa.....	106
3.6	Finantziazioa.....	107
3.7	Ikerketa proiektuko protokolo argitaratua .....	109
<b>4</b>	<b>EMAITZAK/RESULTS .....</b>	<b>129</b>
4.1	Article number: Comparison between multicomponent and simultaneous dual-task exercise interventions in long-term nursing home residents: the Ageing-ON DUAL-TASK randomized controlled study.....	131
4.2	Article number 2: Comparison Between Multicomponent Exercise and Walking Interventions in Long-Term Nursing Homes: A Randomized Controlled Trial .....	145
4.3	Article number 3: Physical exercise interventions have no effect on serum BDNF concentration in older adults living in long-term nursing homes .....	163
<b>5</b>	<b>EZTABAIDA/DISCUSSION .....</b>	<b>179</b>
5.1	Eztabaida orokorra / General discussion .....	179
5.2	Ikerketa proiektuaren mugak eta indarguneak.....	185
<b>6</b>	<b>ONDORIOAK / CONCLUSIONS.....</b>	<b>191</b>
<b>7</b>	<b>BIBLIOGRAFIA / REFERENCES.....</b>	<b>195</b>
<b>8</b>	<b>ERANSKINAK.....</b>	<b>229</b>

**LABURPENA**

**ABSTRACT**



## **LABURPENA**

### **Aurrekari nagusiak eta helburuak**

Zahartu ahala autonomia mantentzea da benetako erronka eta hori da, hain zuzen ere, zahartze aktiboaren helburu nagusietariko bat. Epe ertaineko proiektioek agerian uzten dute gizartearen desgaitasun eta mendekotasun tasen gorakada, eta horrekin batera hirugarren adineko egoitzetako beharren igoera. Hirugarren adineko egoitzetan bizi diren adineko pertsonak biztanleria zaugarri konplexu eta heterogeneoa dira, askotariko eragozpen fisiko eta kognitiboak dituztenak, eta hauskortasun, antsietate eta depresio intzidentzia altuagoak dituztenak, komunitatean bizi diren adineko pertsonekin alderatuta. Zentzu honetan, azken urteetan adineko pertsonen funtzionaltasun galerari aurre egiteko interbentzioen inguruko ikerketa kopurua esponentzialki handitu da eta orain arte ebidentzia maila altuena erakutsi duten esku-hartzeen artean ariketa fisikoan oinarritutakoak ditugu. Hala ere, gaiaren inguruko ikerketa gehienak komunitatean bizi diren pertsonetan gauzatu dira, eta orain arte ez da ondorioztatu zein ariketa fisiko mota den egokiena funtzio fisikoa zein kognitiboa zaintzeko hirugarren adineko egoitzetan bizi diren pertsonentzako. Hortaz, ikerketa proiektu honen helburu nagusia ariketa fisikoan oinarritutako hiru esku-hartze desberdinen eraginkortasuna aztertzea da hirugarren adineko egoitzetan bizi diren adineko pertsonetan.

### **Material eta metodoak**

Ikerketa honetan hirugarren adineko (70 eta 103 urte bitartekoak) 9 egoitzetako 125 pertsonek hartu zuten parte (85 emakume eta 40 gizon). Parte-hartzaile guztiek hurrengo irizpideak betetzen zituzten:  $\geq 70$  urte,  $\geq 50$  puntu Barthel eskalan,  $\geq 20$  puntu MEC-35 eskalan eta bakarrik aulkitik altxa eta 10 metro ibiltzeko gai zirenak. Parte-hartzaileak hiru esku-hartze desberdinetan banatu ziren zoriz: osagai anitzeko ariketa fisikoko esku-hartzea, dual-task esku-hartzea, eta oinez ibiltzeko esku-hartzea. Esku-hartzeek 3 hilabeteko iraupena izan zuten eta balorazioak hasieran eta esku-hartzeak bukatzerakoan gauzatu ziren. Proiektuak UPV/EHU Etika Batzordearen (M10/2016/105; M30/2016/106) eta Matia Fundazioako Etika Batzordearen oniritzia eskuratu zuen. Ikerketa proiektuaren protokoloa "Australian and New Zealand Clinical Trials Registry"-n (ACTRN12618000536268) eta "Clinical Trials"-en (NCT03996083) erregistratu zen.

## **Emaizak**

Doktorego-tesi honen emaitzen atala ikerketa-proiektutik eratorritako hiru artikulutan aurkeztuko da. Lehen bi artikulua argitaratu dira, eta hirugarrena berrikuspen prozesuan dago.

**1. artikulua:** Lehenengo artikulua honetan, osagai anitzeko ariketa fisikoko esku-hartze bati aldebereko entrenamendu kognitiboa gehitzeak ea dual-task ahalmena, funtzio fisiko eta kognitiboa, bizi kalitatea eta afektibitate egoera gehiago hobetu eta hauskortasuna gehiago murrizten dituen aztertu genuen hirugarren adineko egoitzetan bizi diren adineko pertsonetan. Osagai anitzeko ariketa fisikoko taldeak indar eta oreka ariketa indibidualizatuak eta progresiboak egin zituen astean bi aldiz, hiru hilabetez. Dual-task taldeak osagai anitzeko ariketa fisikoko esku-hartzearen ariketa berdina gauzatu zituen, zeinei aldebereko ariketa kognitiboak gehitu zitzaizkien (dual-task bezela ezagutzen dena). Osagai anitzeko ariketa fisikoko taldea zein dual-taskeko talde hobekuntza klinikoki esanguratsuak izan zituzten ibilera abiaduran, ataza kognitiborik gabe zein hiru ataza kognitibo desberdin gehitzerakoan (dual-task) eta Short Physical Performance Battery test funtzionalean. Era berean, bi esku-hartzeak eraginkorrak izan ziren funtzio kognitiboa mantentzeko baina soilik osagai anitzeko ariketa fisikoko taldeak lortu zuen esaguratsuki bizi-kalitatea hobetzea, eta antsietatea eta hauskortasuna murriztea parte-hartzaileen artean.

**2. artikulua:** Bigarren artikuluan, osagai anitzeko ariketa fisikoko esku-hartze baten eta ibiltzean oinarritutako esku-hartze baten eragina alderatu genuen hirugarren adineko egoitzetan bizi diren pertsonen funtzio fisiko eta kognitiboan, ohiko jarduera fisikoan, afektibitate egoeran eta bizi-kalitatean. Osagai anitzeko ariketa fisikoko taldeak indar eta oreka ariketa indibidualizatuak eta progresiboak egin zituen astean bi aldiz, hiru hilabetez. Oinez ibiltzeko taldeko parte-hartzaileak astean bi egunetan ibili ziren ikerketa taldeko ikertzaileekin eta gainerako egunetan, egoitzetako langile, familiako kidek edo zaintzaileen laguntzaz ibili ziren. Oinez ibiltzeko taldearekin alderatuta, osagai anitzeko ariketa fisikoko taldeak hobekuntza handiagoak izan zituen funtzio fisikoan. Hala ere, oinez ibiltzeko taldeak funtzionalitate fisikoa mantendu zuen hiru hilabetezko esku-hartzean zehar. Bestetik, bi taldeek hobekuntza esanguratsuak izan zituzten antsietatean eta bizi-kalitatean, baina ez zen eragin esanguratsurik behatu funtzio kognitiboa edo ohiko jarduera fisikoa bezelako aldagaietan.

**3. artikulua:** Hirugarren artikuluan, osagai anitzeko ariketa fisikoko esku-hartze baten, dual-task esku-hartze baten eta ibiltzean oinarritutako esku-hartze baten eragina aztertu BDNF kontzentrazio serikoan. Esku-hartzeen ezaugarriak aurretik deskribatutakoak dira. Osagai anitzeko ariketa fisikoko, dual-task edo oinez ibiltzeko esku-hartzeek ez zuten aldaketarik eragin serumeko BDNF kontzentrazioan. Era berean, esku-hartzeetan BDNFn izandako aldaketek ez zuten lotura esanguratsurik adierazi funtzio fisikoen, kognitiboan edo dual-task parametroen aldaketekin.

### **Ondorioak**

Kontuan hartuta osagai anitzeko ariketa fisikoko eta dual-task esku-hartzeek funtzio fisikoa hobetu zutela, baina lehenengoak bakarrik hobetu zituela hauskortasuna eta afektibitate egoera, eta dual-task esku-hartzearen konplexutasuna eta bertaratze txikiagoarekin batera, ondorioztatzen dugu esku-hartze mota horrek ez duela onura gehigarririk ekartzen hirugarren adineko egoitzetan bizi diren adineko pertsonetan osagai anitzeko ariketa fisikoko esku-hartzeei dagokienez.

Bestalde, osagai anitzeko ariketa fisikoko esku-hartzeak eta ibiltzeko esku-hartzeak parte-hartzaileen afektibitate egoera eta bizi-kalitatea hobetu bazuten ere, osagai anitzeko ariketa fisikoko taldeak hobekuntza handiagoak izan zituen funtzio fisikoan, baina era berean, ibiltzea, nahikoa izan zen parte-hartzaileen funtzionaltasuna mantentzeko.

Aldiz, ikerketa honetako esku-hartze bakar batek ere ez zuen BDNFren kontzentrazio serikoetan aldaketa nabarmenik eragin aztertutako populazioan. Honela, ariketa fisikoaren eta kognitiboaren eta BDNFren arteko erlazioa argitzeko datu gehiago aurkeztu ditugu.

Arestian aipatutakoa kontutan hartuta, ikerketa proiektu honetan hiru esku-hartzeak eraginkorrak direla hirugarren adineko egoitzetan bizi diren adineko pertsonen funtzionaltasuna mantentzeko eta/edo hobetzeko frogatu dugu. Emaitzak horiek, esku-hartzeekin lotutako ondorio negatiborik ez egotearekin, izandako tolerantzia onarekin eta bertaratze orokor tasa handiekin batera, uste dugu ariketa fisikoko esku-hartzeak egingarriak direla eta, beraz, hirugarren adineko egoitzetan inplementatu beharko liratekela. Horretarako, osagai anitzeko ariketa fisiko eta dual-task bezalako esku-hartze gidatuak egokiak izan litezke talde-giroan ariketa fisikoa egitea nahiago duten edota indarra eta oreka hobetu behar duten egoiliarrentzat. Aitzitik, kontutan izanik osagai anitzeko ariketa fisiko eta dual-task bezalako esku-hartzeek behar dituzten formakuntza zein material espezifikokoak behar dituztela eta pertsona batzuek bakarrik edo aire zabalean



ibiltzea nahiago izan dezaketela, oinez ibiltzeko esku-hartzeak aukera ona izan litezke biztanleria kaltebera honen funtzionaltasuna mantendu ahal izateko.

**ABSTRACT****Background and objectives**

One of the challenges of ageing is to maintain independence as you age, and that in particular, is one of the main objectives of active ageing. Medium-term projections show rising rates of disability and dependency in society and, therefore, increasing needs for long-term nursing homes. Older adults living in these homes represent a complex and heterogeneous vulnerable population, with physical and cognitive impairments, along with a higher incidence of frailty, anxiety and depression than those living in the community. In this regard, in the past few years the number of studies into interventions to address the loss of function in older people has increased exponentially. Among the interventions that have so far shown a higher level of evidence are those composed of physical exercise. However, most research on the topic has been carried out on people living in the community and so far no conclusion has been reached on what type of physical exercise is most appropriate for the care of physical and cognitive function for people living in long-term nursing homes. Therefore, the main objective of this research project was to analyze the effectiveness of three different interventions based on physical exercise on the physical and cognitive function, and psycho-affective state of older adults living in long-term nursing homes.

**Materials and methods**

125 older adults (between 70 and 103 years of age) from nine long-term nursing homes participated (85 women and 40 men) in this study. All participants met the following criteria:  $\geq 70$  years old,  $\geq 50$  points on the Barthel scale,  $\geq 20$  points on the MEC-35 scale and were able to get up from a chair and walk 10 meters. Participants were randomly assigned into three different interventions: a multicomponent exercise intervention, a dual-task intervention and a walking intervention. The project was approved by the Ethics Committee of the UPV/EHU (M10/2016/105; M30/2016/106) and the Ethics Committee of the Matía Fundazioa. The protocol of the research project was registered in the Australian and New Zealand Clinical Trials Registry (ACTRN12618000536268) and in Clinical Trials (NCT03996083).

## Results

The results section in this doctoral thesis will be presented in the form of three articles derived from the research project. The first two articles have already been published while the third is being reviewed.

**Article 1:** In this first article, we analyzed whether the addition of simultaneous cognitive training into a multicomponent exercise intervention further improves dual-task capacity, physical and cognitive function, quality of life, and psycho-affective status, and reduce frailty in long-term nursing home residents. The multicomponent group performed individualized and progressive strength and balance exercises twice a week for three months. The dual-task group carried out the same exercises as in the multicomponent intervention, to which simultaneous cognitive exercises were added (known as dual-task). Both the multicomponent and the dual-task groups showed clinically significant improvements in gait performance under single- and dual-task conditions and on the Short Physical Performance Battery. Likewise, both interventions were effective in maintaining cognitive function, but only the multicomponent group managed to significantly reduce frailty and anxiety, and improve perceived quality of life among participants.

**Article 2:** In the second article we compared the effects of a multicomponent exercise intervention and a walking intervention on physical and cognitive function, habitual physical activity, psycho-affective state and quality of life of people living in long-term nursing homes. Participants in the walking group walked with the research staff two days per week and walked the rest of the partially supervised by long-term nursing home staff, family members or caregivers. Compared to the walking group, the multicomponent group experienced greater improvements in physical function. However, the walking group maintained physical function during the three months of intervention. On the other hand, both groups experienced significant improvements in anxiety and quality of life, but no significant effects on cognitive function or usual physical activity were observed.

**Article 3:** In the third article, we analysed the impact of a multicomponent exercise intervention, a dual-task intervention and a walking intervention on serum BDNF concentration. The characteristics of the interventions have previously been described. Not the multicomponent, the dual-task nor the walking intervention produced changes in serum BDNF concentration. Likewise, changes in BDNF did not relate to changes in physical or cognitive function or dual-task parameters.

**Conclusions**

Considering that both the multicomponent and the dual-task interventions improved physical function but only the multicomponent improved frailty and psycho-affective state, along with the complexity and lower attendance reported in the dual-task group, we conclude that this type of intervention does not provide any additional benefits over multicomponent interventions in older adults living in LTNHs.

On the other hand, despite the multicomponent and the walking interventions improved psycho-affective state and quality of life of participants, the multicomponent group showed greater improvements in physical function, while walking only was sufficient to maintain the participants' functionality.

Nevertheless, none of the studies interventions managed to significantly alter serum BDNF concentrations in the studied population. Therefore, we provided further information to help clarify the relationship between physical and cognitive exercise and BDNF.

In light of the above, we have shown that all three interventions are effective in maintaining and/or improving the functionality of older adults living in long-term nursing homes. Taking into account these results along with the absence of negative effects associated with the interventions, the good tolerance and overall high attendance rates observed, we believe that exercise-based interventions are feasible and should therefore be implemented in long-term nursing homes. To this effect, guided interventions such as multicomponent and dual-task interventions could be suitable for residents who prefer to exercise in a team environment or who need to improve their strength and balance. In contrast, considering that multicomponent and dual-task interventions need specific training and material, and that some people may prefer to walk on their own or outside, walking interventions may be a good alternative to maintain functionality in this vulnerable population.



**LABURDURAK**

**ABBREVIATIONS**



**LABURDURAK/ABBREVIATIONS**

**AF:** Ariketa fisikoa

**ANOVA:** Analysis of Variance

**ANZCTR:** Australian and New Zealand Clinical Trials Registry

**BBS:** Berg Balance Scale

**BDNF:** Brain-Derived Neurotrophic Factor

**BMI:** Body Mass Index

**CONSORT:** Consolidated Standards Of Reporting Trials

**CPM:** Counts per minute

**CV:** Coefficient of variation

**DT:** Dual-task

**EAE:** Euskal Autonomi Erkidegoa

**HAE:** Hirugarren adineko egoitza

**IANA:** International Academy on Nutrition and Aging

**iTUG:** Instrumented Timed Up And Go Test

**LTNH:** Long-term nursing home

**MEC-35:** Mini Examen Cognoscitivo

**MG:** Multicomponent group

**MMSE:** Mini Mental State Examination

**MoCA:** Montreal Cognitive Assessment

**MVPA:** Moderate-vigorous physical activity

**6MWT:** Six-Minute Walking Test

**PTS:** Points

**QoL-AD:** Quality of Life Alzheimer's Disease scale



**RAVLT:** Rey Auditory Verbal Learning Test

**REP:** Repetitions

**RM:** Repetition maximum

**SD:** Standard deviation

**SFT:** Senior Fitness Test

**SOF:** Study of Osteoporotic Fractures frailty

**SPPB:** Short Physical Performance Battery

**TMT:** Trail Making Test

**WG:** Walking group

**WHO:** World Health Organization

**WHR:** Waist-to-hip ratio

**WAIS-IV:** Wechsler Adult Intelligence Scale, fourth edition

# **1. AURREKARI NAGUSIAK**

## **BACKGROUND**




## 1 AURREKARI NAGUSIAK/BACKGROUND

### 1.1 Gaur egungo demografia: Biztanleriaren zahartzea

Bizi-itxaropenaren hazkundera gertatzen ari da mundu-mailan (Scully, 2012). Zehazki, azken mendean bizi-itxaropenaren hazkundera 30 urtekoa izan da herrialde garatuetan (Christensen, Doblhammer, Rau eta Vaupel, 2009). Populazioaren zahartzearen eta jaiotza tasaren murrizketaren ondorioz, 65 urtetik gorako pertsona kopurua bikoiztu egingo dela aurreikusten da (2007. urtetik 2050. urtera; WHO, 2007). Honekin lotuta, iradokitzen da mendekotasuna duten adineko helduen kopurua 350 milioitik 488 milioira handituko dela 2010etik 2030era (Prince, Prina eta Guerchet, 2013) eta honekin batera hirugarren adineko egoitzetan (HAE) bizi den adinekoen kopuruak ere nabarmen egingo du gora.

Europako herrialdeekin konparatuta, Euskal Autonomi Erkidegoko (EAE) bizi itxaropena altuenetariko bat da eta handitzen jarraitzen du (Eustat, 2019a). EAE-ko emakumeek Europako bizi itxaropen altuena dute 86,2 urterekin (Eustat, 2018a). Aldiz, gizonezkoek bigarren altuena dute 80,4 urterekin eta Italiarekin berdinduta, Suedia izanik gizonezkoen bizi itxaropen altuena duen herrialdea. Hau guztia, jaiotze tasaren murrizketarekin batera (Eustat, 2018b), biztanle-piramidearen aldaketa bultzatu du, non 1990. urtean 65 urtetik gorako pertsonak biztanleriaren % 12 ziren bitartean, 2019. urtean ehuneko hori ia bikoiztu egin den (% 22,4; Eustat, 2019b; 1. Irudia).



**1. Irudia.** Adierazle demografikoa. Ezkerrean 1990. urteko biztanle-piramidea eta eskuinean 2019. urtekoa. Marra gorriak 65 urteko populazioa adierazten du. Iturria: Eustat (2018).

Adineko pertsonen artean gehiengoak emakumeak izaten jarraitzen badira ere, bi sexuen banaketa orekatzen joango dela aurreikusten da, bi sexuen bizi-itxaropenaren

parekatzeko joera dela eta. Adibide bezala, gaur egungo 65 urtetik gorako biztanleriaren % 57,5 emakumezkoek osatzen duten bitartean, 2030. urtean % 56,4ra murriztuko dela aurreikusten da (Eustat, 2019).

Lehen aipatu bezala, gure herrialdeak bizi-itxaropen altuenetariko bat du. Hala ere, inguruko beste herrialde batzuek bizi-itxaropen osasuntsu luzeagoa dute (Ministerio de Sanidad Servicios Sociales e Igualdad, 2014; Andradas, Labrador, Lizarbe eta Molina, 2014). Hortaz, bizi-itxaropenaren handitzeak ez du zertan bizi-kalitate on baten eskutik joan behar (Kress eta Herridge, 2012). Osasuna gizartearen zutabe ekonomiko zein sozial garrantzitsua izanik, gure gizartearen helburu gorenetakoa bat desgaitasunik gabeko ahalik eta urte gehien bizitzea bilakatu da.

Zahartzea garaipen bat bada ere, erronka handia da eta aldaketa sozial eta politiko garrantzitsuak eragiten ditu. Bizi-itxaropenaren hazkundeak eskakizun ekonomiko eta sozial handiagoak ezarriko ditu maila guztietan eta, zehazki, osasun-sistemetan (Andradas eta lank., 2014). Adibidez, Ekonomia Lankidetzaz eta Garapenerako Erakundeak kalkulatu du zahartzearekin lotutako gastu publikoaren hazkunde handia emango dela, batz besteko barne produktu gordinaren 3,5 puntu ingurukoa 2050.urterako (Oxley, 2009). Bestetik, zahartzeari loturiko gastu publiko hau erdira murriztu liteke osasun oneko bizi-itxaropenaren hazkundera batz besteko bizi-itxaropenaren hazkundera erakiko proportzionala balitz, hau da, osasun oneko bizi-itxaropena luzatuz (Andradas eta lank., 2014).

Tradizionalki, osasuna gaixotasun falta bezala kontsideratu da 1948. urtean munduko osasun erakundeak (WHO, 1948) osasunaren hurrengo definizioa eman zuen arte: "Erabateko ongizate fisiko, mental eta sozialeko egoera, eta ez soilik gaixotasun eza". Modu honetan, gaixotasun faltaren definizio negatiboa gainditu eta ikuspegi positiboago batetik definitu zen. Alabaina, bizi-itxaropenaren hazkundeak dakarren gaixotasun kronikoen agerpenarekin, azken urteetan definizio hau zaharkitua gelditu dela diote hainbat ikertzaileek (Godlee, 2011). Ikusi denez, desgaitasunik gabeko adinekoen osasunaren adierazlerik onena ez da morbiditatea baizik eta funtzioa (Silguero eta lank., 2014), azken honek bizi-itxaropena, bizi-kalitatea eta biztanle bakoitzak beharko dituen baliabideak edo laguntzak zehazten dituelako (Volpato eta lank., 2010; Pavasini eta lank., 2016; Andradas eta lank., 2014). Funtzioaren galera gertatzen denean pertsonak eguneroko jarduerak era autonomoan burutzeko gaitasuna galtzen du eta desgaitasuna agertzen da. Desgaitasunak bizi-kalitatean eragin negatibo bat izateaz gain, ondorio

kaltegarriak izateko arriskua handitzen du, hala nola erorketak, ospitaleratzeak, HAE-tara bizitzera joan behar izatea eta heriotza (Keeler, Guralnik, Tian, Wallace eta Reuben, 2010).

Hau guztia kontutan hartuta, argi geratzen da zahartu ahala autonomia eta independentzia mantentzea dela benetako erronka. Epe ertaineko proiektioek agerian uzten dute desgaitasunak eta mendekotasunak gora egiten ari direla (Andradas eta lank., 2014). Honen arrazoia ez dago soilik biztanleria-piramidearen aldaketaren menpe baizik eta beste faktore aldagarri batzuen menpe baita ere, esku-hartzeen bitartez alda daitezkeenak (Andradas eta lank., 2014). Hain zuzen ere, autonomia eta independentzia mantentzea dira zahartze aktiboaren helburu nagusiak, mundu osasun erakundeak (WHO) sortutako terminoa 90eko hamarkadaren amaieran (WHO, 1990). Kontzeptu horrek zahartze osasungarria barne hartzen du, gaitasun funtzional, fisiko eta kognitiboa kontutan hartuz (WHO, 2002). Honen garrantzi estrategikoa dela eta, hainbat ekimen bultzatu dira nazioarte zein Europa mailan. Hauen artean, aipatzekoa da "Zahartze aktiboari eta osasungarriari buruzko Europako berrikuntzarako lankidetz", zeinaren ekintza-zutabeetako bat hauskortasunaren eta narriadura funtzionalaren prebentzioa eta antzemate goiztiarra den (EIP-AHA, 2011).

## **1.2 Zahartze-prozesua eta bere ondorioak**

Zahartzea prozesu graduala da, bizi guztikoa eta oso aldakorra, funtzio fisiologikoen narriadura progresiboa ezaugarri duena (Kirkwood, 2017). Zahartzea faktore genetikoaren, morbiditatearen eta beste faktore batzuen (jarduera fisikoa, nutrizioa eta bizimodua) bidez azal daiteke (Kirkwood, 2017). Endekapen prozesu honek eragiten dituen funtzio fisiko zein kognitiboen gainbeherak gaitasun funtzionalaren galera eragiten dute, eguneroko jarduerak aurrera eramatea oztopatuz (Rodríguez-López, Montero, Carmenate eta Avendano, 2014; Blazer, Yaffe, eta Karlawish, 2015). Era berean, eguneroko jarduerak gauzatzeko ezintasuna edo desgaitasuna da bizi kalitatea murrizketaren eragile nagusinetariko bat (Keeler eta lank., 2010).

Funtzio fisikoaren gainbeherari dagokionez, zahartze prozesuak indarra, oreka eta gaitasun aerobikoaren murrizketa eragiten du, eragin zuzena duten gaitasunak ibili edo altxatzea bezalako jarduerak burutzeko (Tabue-Teguo eta lank., 2018; Goodpaster eta lank., 2006; Reid, Naumova, Carabello, Phillips eta Fielding, 2008; Milanović eta lank., 2013). Gaitasun fisikoaren narriadurak erorketak izateko arriskua handitzen du, bizi-kalitatea murriztu, hilkortasun-arriskua handitu (Reid, Keogh, Swinton, Gardiner eta Henwood, 2018; Bradley, 2013; Wolinsky eta lank., 2007) eta osasun gertakari kaltegarriak izateko

arriskua handitzen ditu, HAE-ko egoiliarren artean ohikoak direnak (Williams eta lank., 2005).

Funtzio kognitiboaren gainbeherari dagokionez, kognizioak behera egiten du adinarekin batera, eguneroko bizitzaren funtzionamenduan eragina izan dezaketen aldaketa kognitibo sotil normalekin (Harada, Love eta Triebel, 2013). Aldaketa hauek pertsonen autonomian eragina izan dezakete mendekotasuna handituz eta bizi kalitatea gutxituz (Blazer eta lank., 2015). Hala ere, prozesu hau oso aldakorra izan ohi da (Blazer eta lank., 2015). Hauskortasuna bezalako sindrome edota gaixotasun zehatz batzuen kasuan bezala, adin bereko pertsonen baina emaitza txarragoak izan ohi dituzte funtzio exekutiboaren eta prozesatzeko abiaduraren zenbait probatan (Langlois eta lank., 2012). Bestetik, zahartze prozesuan zehar oroimena eta erreakzio denbora bezalako funtzioak okertzen diren arren, jakituria eta adimena bezalako beste funtzio batzuk mantentzen edo hobetzen direla ikusi da (Blazer eta lank., 2015).

### **1.3 Hirugarren adineko egoitzak eta egoiliarren ezaugarriak**

Adineko pertsonak HAE-etara bizitzera joatearen arrazoi nagusienetariko bat eguneroko jardueretan autonomia galtzea eta horrek dakarren mendekotasuna da (Hagen, 2013). Hau dela eta, mendekotasunaren igoerak eragin zuzena izango du HAE-en eskariaren igoeran eta aurreikusten da ingurune hauetan bizi diren pertsona kopurua ere nabarmenki hazi egingo dela (Hagen, 2013).

HAE-etan bizi diren adineko pertsonak biztanleria zaurgarri konplexu eta heterogeneoa dira, askotariko eragozpen fisiko eta kognitiboak dituztenak, erorketa-tasa altuak eta jarduera fisiko gutxi erakusten dituztenak (Bates-Jensen eta lank., 2004; De Souto Barreto eta lank., 2016). Gainera, mendekotasun-prebalentzia handia dute eguneroko bizitzako jardueretan, eta multimorbiditatea eta polimedikazioa ere oso ohikoak dira biztanleri honetan (Souto Barreto eta lank., 2016; Jones, Dwyer, Bercovitz eta Strahan, 2009). Kalkuluen arabera, egoiliarren % 89ak eguneroko bizitzan eragina duten mugikortasun muga edo arazoak dituzte. Muga horiek jarduera fisikoaren murrizketa eragiten dute eta bakardadearen, antsietatearen eta depresioaren pertzepzioa larriagotzen dituzte, bizi kalitatea murriztuz (Meuleman, Brechue, Kubilis eta Lowenthal, 2000).

Izan ere, HAE-etan bizi diren adineko pertsonen jarduera fisiko maila oso baxuak erakusten dituzte, eta jarduera sedentarioetan igarotzen dute egunaren zatirik handiena (Bates-Jensen eta lank., 2004; Jones eta lank., 2009; Bauman, Merom, Bull, Buchner eta

Fiatarone-Singh, 2016; Arrieta, Rezola, Gil, Irazusta, eta Rodriguez-Larrad, 2018a). Jarduera fisiko baxua narriadura fisikoarekin ez ezik (Masciocchi, Maltais, Rolland, Vellas eta Barreto, 2019) funtzio afektiboaren narriadurarekin ere lotzen da, antsietatea eta depresioa batik bat (Manion eta Rantz, 1995; Wipfli, Rethorst eta Landers, 2008). Bestetik ere, jarduera sedentarioa funtzionaltasunaren narriadurarekin erlazionatu da biztanleri honetan (Dunlop eta lank., 2015; Rosenberg eta lank., 2015) eta eragin kaltegarriak ditu osasunean, bestek beste gaixotasun kardiobaskularrak, sindrome metabolikoa eta obesitatearen garapena errazten du (Shiroma, Freedson, Trost eta Lee, 2013; De Rezende, Rey-López, Matsudo eta Do Carmo Luiz, 2014).

Hau guztia kontutan hartuta, argi geratzen da HAE-ek aurre egin beharreko erronka nagusia egoiliarrei dimentsio anitzeko kalitatezko arreta ematea dela, haien behar fisiko, kognitibo eta afektibo erantzuteko helburuarekin (Cott, Dawson, Sidani eta Wells, 2002; Wiener, 2003; Castle eta Ferguson, 2010).

## **1.4 Hauskortasuna**

### **1.4.1 Hauskortasunaren kontzeptualizazioa**

Azken urteetan, zahartze-prozesuaren inguruko ikerketek hauskortasun sindromea izan dute ardatz. Hauskortasuna, gorputz-sistema ugaritan erreserba fisiologikoaren murrizketa progresibo bat, eta ondorioz, estresarekiko kalteberetasun handiagoa eragiten dituen entitatea da (Santos-Eggimann, Cuénoud, Spagnoli eta Junod, 2009; Collard, Boter, Schoevers eta Oude Voshaar, 2012; Rodriguez-Manas eta Fried, 2015). Adineko pertsonen artean hauskortasuna ohikoa izaten da eta desgaitasun, narriadura funtzional, ospitalizazio eta hilkortasun arrisku handiagoa dakar (Vellas, 2016; Garcia-Garcia eta lank., 2011). Bestetik, komorbilitatea eta desgaitasuna hauskortasunarekin batera agertzen ohi badira ere, entitate kontzeptual eta kliniko desberdinak dira, kasu batzuetan hauskortasuna pairatu daitekeelako komorbilitate edo desgaitasunik izan gabe (Fried, Ferrucci, Darer, Williamson eta Anderson, 2004; Rodríguez-Mañas eta lank., 2012).

Hauskortasunaren inguruan hainbat ikerketa argitaratu badira ere, ez dago definizio estandarizatu ezta bateraturik ere (Rockwood eta Howlett, 2018). Hortaz, antzemate tresna desberdinak diseinatu dira (Rodríguez-Mañas eta lank., 2012) eta horien bitartez ateratako hauskortasunaren prebalentziaren ehunekoak ikerketa batetik bestera aldatu egiten dira (Collard eta lank., 2012; Morley eta lank., 2013). Ondorioz, nahiz eta ikerketa arloan hauskortasuna kontzeptu ezaguna izan, antzemate eskalak zein honen tratamendurako esku-hartze desberdinek arlo klinikoan presentzia txikia dute gaur egun.



Adineko pertsonen kopuruaren antzera, hauskortasunaren prebalentzia handitzen ari da, komorbilitatedun adinekoen bizi-itxaropenaren handitzearen, bizimodu sedentarioaren eta gizarte-laguntzako sare txikiagoen bezelako arrazoiengatik (Marshall, Nazroo, Tampubolon eta Vanhoutte, 2015; Siriwardhana, Hardoon, Rait, Weerasinghe eta Walters, 2018). Komunitatean bizi diren pertsonen % 4-59 hauskorrek direla kalkulatzen da (Collard eta lank., 2012). Aldiz, metanalisi baten arabera, HAE-etan hauskortasunaren prebalentzia % 19-75,6 artekoa da, non batezbesteko egoiliarren erdia baino gehiago hauskorrek diren. Hortaz, HAE-etan hauskortasun tasak komunitatean bizi diren pertsonenak baino altuagoak izan ohi dira.

Hauskortasuna Friedek eta bere lankideek deskribatu zuten lehen aldiz ezaugarri fisiko edo fenotipoan oinarrituz (Fried eta lank., 2001); eta geroztik, hauskortasuna gehienbat arlo fisikotik aztertua izan da. Nahiz eta tradizionalki hauskortasun fisikoa eta narriadura kognitiboa bereizita ikertu izan diren, ikerketa berriek elkarrekin erlazionatuta daudela defendatzen dute (Kelaiditi eta lank., 2013; Facal eta lank., 2019). Honen ildora, zenbait azterlan epidemiologikok jakinarazi dute hauskortasunak etorkizuneko narriadura kognitiboa izateko arriskua areagotzen duela eta era berean narriadura kognitiboak hauskortasun-arriskua areagotzen duela (Robertson, Savva eta Kenny, 2013). Kognizioak behera egiten du adinarekin batera, eguneroko bizitzaren funtzionamenduan eragina izan dezaketen aldaketa kognitibo sotil eta normalekin (Harada eta lank., 2013) baina adineko pertsona hauskorrek emaitza okerragoak izan ohi dituzte funtzio exekutiboa eta prozesatzeko abiaduraren proba jakin batzuetan (Langlois eta lank., 2012). Honek iradokitzen du hauskortasun fisikoak eta narriadura kognitiboak elkarri eragiten diotela.

Hauskortasun fisikoa eta narriadura kognitiboa elkarrekin aztertzen dituen eraikuntza berri hori eraginkorragoa izan daiteke biak bananduta aztertzea baino zenbait gertakari kaltegarri aurreikusteko, hala nola desgaitasun funtzionala, bizi-kalitatearen gutxitzea, eta heriotza (Feng eta lank., 2017). Honen harira, 2013.urtean hauskortasun kognitiboaren definizioa proposatu zen, non hauskortasun fisikoa eta narriadura kognitiboa elkarrekin agertzen direnean dementziarik izan gabe hauskortasun kognitiboa deritzon (Kelaiditi eta lank., 2013). Urteak pasa badira ere, gaur egun ikerketa gutxi daude hauskortasun fisikoa eta narriadura kognitiboa elkarrekin aztertu dituztenak.

Hainbat autoreen arabera, hauskortasuna irauli daitekeen entitate dinamikoa da, batez ere lehen etapetan (Gill, Gahbauer, Allore eta Han, 2006; Rockwood eta Mitnitski, 2007; Lang, Michel eta Zekry, 2009), desgaitasuna ez bezala (Cesari eta lank., 2016). Hauskortasuna desgaitasunaren aurreko pausua izanik, antzemate goiztiarra ezinbestekoa

da eta osasun-zerbitzuen zein osasun-politiken lehentasun garrantzitsuen artean egon beharko luke (Tarazona-Santabalbina eta lank., 2016; Rodríguez-Mañás eta lank., 2018). Honekin erlazionaturik, azken urteetan adineko pertsonen eta hauskortasunaren inguruko ikerketa kopurua esponentzialki handitu da non hauskortasunaren antzemate goiztiarraren neurketa ezinbestekoa dela defendatzen den desgaitasuna eta mendekotasuna ekidin edo atzeratzeko asmoarekin (Abizanda eta lank., 2014).

#### **1.4.2 Hauskortasunaren antzematea**

Hauskortasunaren antzematea ezinbestekoa da honek duen garrantzia klinikoagarengatik, desgaitasuna, menpekotasun fisiko eta psikosoziala pairatzeko eta erortzeko arrisku handiagoa suposatzen baitu, besteak beste (Vellas, 2016). Zentzu honetan, orain dela gutxi hauskortasunaren antzemate eta kudeaketarako praktika klinikoko jarraibideak publikatu dira (Dent eta lank., 2019). Jarraibide horien arabera eta antzemateari dagokionez, osasun-arloko profesionalak adineko pertsona guztien hauskortasun-kasuak identifikatu eta aztertzea gomendatzen da, ingurune edo testuinguru espezifiko bakoitzerako tresna baliagarriak erabiliz. Helburu horrekin, hainbat dira diseinatu diren honen antzematerako eskala eta probak. Hurrengo lerroetan zertzelada batzuk emango diren arren, metodoen atalean hauen ezaugarri eta xehetasunak azalduko dira.

##### **1.4.2.1 Hauskortasun eskalak**

Aurreko lerroetan aipatu den bezela gaur egun ez dago guztiz argi ea hauskortasuna entitate fisiko, kognitibo edo soziala den edo aurreko guztien nahasketa bat (Rodríguez-Mañás eta lank., 2012; Morley eta lank., 2013). Bestetik, hauskortasuna antzemateko eskala bat eraginkorra izan behar da (Gray eta lank., 2016). Hortaz eta helburu horrekin, hainbat dira diseinatu diren eskalak hauskortasuna neurtzeko (Bouillon eta lank., 2013; Dent eta lank., 2019), besteak beste Fried Frailty Index, Rockwood Clinical Frailty Scale, Study of Osteoporotic Fractures frailty, Edmonton frailty scale eta IANA FRAIL scale. Gehiengoak hauskortasunaren arlo fisikoa antzemateko proposatu badira ere (Fried eta lank., 2002; Guralnik eta lank., 2000; Ensrud eta lank., 2008), beste aukera batzuk daude non antzematea ikuspegi klinikoan oinarritzen den (Rockwood eta lank., 2005) edota arlo psikologikoa eta soziala ere kontutan hartzen diren (Gobbens, Van Assen, Luijckx, Wijnen-Sponselee eta Schols, 2010). Hauskortasuna detektatzeaz gain, horietako asko ondorio kaltegarrien iragarle gisa proposatu dira, hala nola narriadura funtzionala, ospitaleratze luzeak eta hilkortasuna (Rockwood eta lank., 2005; Hewitt eta lank., 2015; Kahlon eta lank., 2015).

Hauskortasuna neurtzeko eskalek orokorrean hainbat atal izaten dituzte, non atal bakoitzaren batuketa egiten den puntuazio orokor bat eskuratuz. Eskala hauek interpretatzerako orduan mozketak puntu bat zehaztu ohi da pertsona hauskorra edo ez hauskorra dela kontsideratzeko. Erabilitako eskalaren arabera, hauskorrak kontsideratzen diren pertsonen kopurua desberdina da. Esate baterako, HAE-etan aurrera eramandako ikerketa baten arabera, hauskortasunaren prebalentzia % 25, % 55, % 56,9-koa da Fried-en hauskortasun indizearen, Tilburg-en hauskortasun indizearen eta hauskortasun eskala klinikoaren arabera, besteak beste (Buckinx eta lank., 2017). Hortaz, gaur egun ez dago adostasunik hauskortasuna antzemateko eskalen artean prebalentzia portzentaiak desberdinak izanik eta ikerketa gehiago behar dira hauskortasun eredu egokiena zehazteko HAE-etan (Buckinx eta lank., 2017). Hala ere, erabilitako eskalen arteko desberdintasunak alde batera utzita, azpimarratzekoa da hauskortasunaren prebalentzia handia HAE-etan bizi diren pertsonen artean.

#### **1.4.2.2. Proba fisiko eta dual-task probak**

Gaur egun ez da ezagutzen hauskortasuna bere osotasunean (funtzio kognitiboa eta soziala bezalako arloak ere barne hartzen dituena) neurtzen duen behin-betiko eskalarik. Horregatik, test gehigarrien inguruko ikerketak aurrera jarraitzen du.

Hauen artean, funtzionaltasunean oinarritutako balorazio neurriak tresna proposatu dira gertaera kaltegarriak pairatzeko arriskuan dauden adineko pertsonak identifikatzeko, hala nola narriadura funtzionala eta desgaitasuna, erorketak, ospitalizazioak eta heriotza (Guralnik, Ferrucci, Simonsick, Salive eta Wallace, 1995; Okumiya eta lank., 1998; Binder, Miller eta Ball, 2001; Studenski eta lank., 2003; Montero-Odasso eta lank., 2005; Verghese, Holtzer, Lipton eta Wang, 2009; Pavasini eta lank., 2016). Proba hauek orokorrean material espezifikoko gutxi beharra dute, eta azkar eta erraz burutu ohi dira, esparru klinikorako baliagarriak suertatuz. Honetaz gain, desgaitasunera eraman dezakeen etapa aurrekliniko batean dauden pertsonak identifikatzen lagundu dezakete (Vellas, 2016). Proba hauetan, populazioaren araberrako mozketak puntuak proposatu dira: komunitatean bizi diren adineko pertsonak, HAE-etan bizi direnak, gaixotasun zehatzak dituztenak eta abar. Hortaz, proba hauek garrantzi handikoak gertatzen dira hauskortasunarekin loturiko ondorio kaltegarri horiek aurreikusi ahal izateko.

Proba fisikoen barruan, hainbat dira ikerketarako fidagarritasun eta baliagarritasun altua erakutsi dutenak (Podsiadlo eta Richardson, 1991; Guralnik eta lank., 1995; Rikli eta Jones, 2001; Bohannon, Andrews eta Thomas, 1996). Ikerketa esparruan gehien erabiltzen

diren testen artean ibilera abiadura, Timed Up & Go test (TUG) eta Short Physical Performance Battery (SPPB) ditugu. Ibilera abiadura funtzionalitate zeinu bezala kontsideratzen da hainbat ondorio kaltegarriekin duen loturagatik (Middleton, Fritz eta Lusardi, 2015). Ibilera abiadura motelak desgaitasuna, ospitalizazio eta erorketa arrisku zein heriotza arriskua aurreikusteko ahalmena duela frogatu da (Studenski eta lank., 2003; Montero-Odasso eta lank., 2005; Cesari eta lank., 2005; Verghese eta lank., 2009). Gainera, narriadura kognitiboa ere aurreikusteko ahalmena izan dezakela ikusi da (Alfaro-Acha, Al Snih, Raji, Markides eta Ottenbacher, 2007). Gertaera kaltegarri hauetako bakoitza aurreikusteko mozketa puntu desberdinak proposatu dira. Esaterako, hauskortasuna antzemateko mozketa puntua  $0,65 \text{ m}\cdot\text{s}^{-1}$ -ko abiadurakoa izatea proposatu den bitartean (Fried eta lank., 2001), komunitatean bizi diren pertsonen artean, ibilera  $0,8 \text{ m}\cdot\text{s}^{-1}$  baino motelagoa jada patologikoa bezala sailkatzen da (Montero-Odasso eta lank., 2004). Aldiz, mozketa puntu horiek komunitatean bizi diren adineko pertsonekin ateratakoak dira eta gaur egun ez da HAE-etako adineko pertsonentzako mozketa puntu espezifikorik proposatu (Moyer, Gale, Severe, Braden eta Hasson, 2017). Hala ere, gaur egun gai honen inguruko ezagutza mugatua da eta ez dago adostasun argirik. Hortaz, ikerketa gehiago ibilera abiadura eta hauskortasunaren arteko erlazioa argitzera bideratzea ezinbestekoa da.

Bestetik, SPPB testak narriadura funtzionala, desgaitasuna, erorketak eta heriotza ere aurreikusi ditzakela ikusi da (Vasunilashorn eta lank., 2009; Pavasini eta lank., 2016). Mozketa puntua 10 puntuetan kokatzen da (maximoa 12 izanik), non hortik beherako puntuazioak aipatutako ondorio kaltegarriak aurreikusteko ahalmena duela frogatu den. (Vasunilashorn eta lank., 2009; Pavasini eta lank., 2016). Gainera, Camara eta lankideek (2013) frogatu zuten, 9 puntuko mozketa puntuak hauskorak diren eta hauskorak ez diren adineko pertsonen artean desberdintzeko gaitasuna du.

Azkenik, TUG testa eguneroko jarduera esanguratsuak burutzeko zailtasuna eta osasun-egoeraren galera izateko arriskuarekin lotu izan da (Wennie-Huang, Perera, VanSwearingen eta Studenski, 2010; Viccaro, Perera eta Studenski, 2011). Gainera, TUG testean 16 segunduko mozketa puntuak hauskortasuna duten pertsonak antzemateko gaitasuna azaldu du komunitatean bizi diren adineko pertsonetan (Savva eta lank., 2013). Erorketa arriskuari dagokionean, ikerketa batzuk TUG eta erorketen artean lotura aurkitu duten bitartean komunitatean bizi diren adineko pertsonetan (Okumiya eta lank., 1998; Shumway-Cook, Brauer eta Woollacott, 2000; Lin eta lank., 2004; Kojima eta lank., 2015), beste batzuek ez dute loturarik aurkitu (Boulgarides, McGinty, Willett eta Barnes, 2003;

Montero-Odasso eta lank., 2005). Hortaz, TUG testaren ahalmena erorketak aurreikusteko eztabaidagarria da gaur egun.

Bestetik, hauskortasun fisiko eta kognitiboa elkarrekin aztertzen dituen adierazle berritzailea dual-task (DT) izenez ezagutzen den proba egiteko gaitasun eskasa izan liteke. DT, arreta eskatzen duten bi ataza aldi berean egitean datza (fisikoa + kognitiboa). Eguneroko bizitzako jarduera askok hainbat ataza aldi berean egitea eskatzen dute, eta arreta-baliabideen eskaera lehiakorrek sortzen dituzte funtzio motore zein kognitiboen artean (Plummer, Zukowski, Giuliani, Hall eta Zurakowski, 2016). Kontuan hartuta arreta-gaitasuna mugatua dela, arreta-eskaera arreta-ahalmena baino handiagoa denean, proba fisikoaren, kognitiboaren edo bien errendimendua murriztu daiteke, proba berdinen gauzatze banatuarekin alderatuta. Hainbat faktore identifikatu dira dual-task gaitasunean eragina dutenak. Esate baterako, adinak eragin zuzena dauka DT gaitasunean. Izan ere, adineko helduek gabezia handiagoak dituzte dual-task probak egiteko gazteekin alderatuta, hala nola animaliak izendatzea oinez doazen bitartean edo kalkuluak egitea oreka ariketetan (Wickens, 2002; Albinet, Bernard eta Palut, 2016). Horretaz gain, narriadura kognitiboa duten pertsonen narriadura kognitiborik gabekoek baino dual-task gaitasun txikiagoa dutela ikusi da (Muir eta lank., 2012). Honen arrazoia narriadura kognitiboa duten pertsonen erreserba kognitibo txikiagoa izanik haien arreta ahamena errazago gainkargatu egiten delako (arreta-eskaera arreta-ahalmena baino handiagoa denean) gertatzen dela uste da (Montero-Odasso eta lank., 2017). Bestetik ere, proben zailtasun maila geroz eta handiagoa izan atentzio eskaera handiagoa izanik, orduan eta gehiago kaltetzen da dual-task gaitasuna. Ondorioz, proba fisikoaren gauzatzea bigarren probaren gauzatzearen ondorioz kaltetuta gertatzen denean, desoreka egoerak eman ohi dira, erortzeko arriskua handitzen dutenak (Lundin-Olsson, Nyberg eta Gustafson, 1997; Schwenk, Zieschang, Oster, eta Hauer, 2010).

Dual-task gaitasun txikia narriadura kognitiboarekin eta erorketak izateko arrisku handiarekin lotu izan den bitartean (Beauchet eta lank., 2009; Plummer-D'Amato eta lank., 2012; Faulkner eta lank., 2007), beste autore batzuk ez dute loturarik aurkitu dual-task gaitasuna, hauskortasuna eta funtzio kognitiboaren artean (Rossi eta lank., 2019).

Dual-task gaitasuna kostua deritzon aldagaiaren arabera aztertu ohi da. *Dual-task interferentzia* edo *dual-task kostua*, dual-task probaren eta ataza bakarreko probaren errendimenduaren arteko aldea da (Yogev-Seligmann, Hausdorff eta Giladi, 2008); adinarekin areagotu egiten dena (Al-Yahya eta lank., 2011). Dual-task kostua esparru fisikoan zein kognitiboan neur daiteke. Ildo horretan, gehien erabiltzen den formula

honako hau da: dual-task kostua =  $((\text{dual task} - \text{single task}) / \text{single-task}) \times 100$  (Plummer-D'Amato eta lank., 2012). Dual-task kostu fisikoa kalkulatzeko, denbora (s) edota abiadura ( $\text{m}\cdot\text{s}^{-1}$ ) erabiltzen dira; aldiz, dual-taskaren kostu kognitiborako, erantzun zuzenen kopurua edo erantzun zuzenen ehunekoa erabil daiteke, ataza bakarraren eta dual-task errendimendua alderatzeko.

Hala ere, ez dago adostasunik dual-task gaitasuna ebaluatzeko prozeduraren inguruan eta ikerketen arteko hainbat desberdintasun antzeman daitezke proba fisikoaren (adibidez, ibilera abiadura edo TUG), proba kognitiboen izaeraren eta zailtasunaren (adibidez, funtzio exekutiboa, memoria.), baimendutako saiakeren kopuruaren (1etik 5era) edo aldagai nagusien erabileraren arabera (adibidez, dual-task kostu-formulak, ibileraren espazio-denborako parametroak). Bestetik, aipatzekoa da gaur egun ez dagoela mozketak punturik dual-task gaitasuna ebaluatzeko eta kostua erabiltzen dela aldaketak neurtzeko, non kostuaren murrizketa hobekuntza bezala kontsideratzen den (Plummer eta Eskes, 2015).

Hau guztia kontutan hartuz, funtzionaltasunarekin loturiko proba hauen inguruko ezagutza zabaltzea ezinbestekoa da hauskortasuna zein gertaera kaltegarriak ekidin edota atzeratu ahal izateko helbururarekin.

#### **1.4.2.3. Biomarkatzaileak**

Hauskortasun eskalekin batera, hainbat dira proposatu diren biomarkatzaileak hauskortasuna antzemateko potentziala izan dezaketenak, baina orain arte lortutako ebidentzia maila ez da nahikoa hauen baliagarritasuna frogatzeko. Hauskortasun klinikoa ebaluatzeko eskalak ikuspegi orokor batetik eraginkorrak diren arren, biomarkatzaileak diagnostikoa eta pronostikoa osatzen lagundu dezakete larritasuna ebaluatuz eta arreta pertsonalizatzen laguntzeko, pertsona bakoitzaren hauskortasun profila zehaztuz (Mitnitski eta lank., 2015; Muscedere eta lank., 2019). Gainera, ikuspuntu kliniko batetik, hauskortasuna antzemateko biomarkatzaileak identifikatzeak garrantzi handia du bariabilitate handia dagoelako pertsona batetik bestera eta hauskortasuna sindrome dinamikoa izanik itzulgarria izan daitekeelako (Keladiti eta lank., 2013; Muscedere eta lank., 2019). Hortaz, biomarkatzaileen inguruko ikerketak aurrera jarraitzen du hauskortasuna antzemateko honen ondorio kaltegarriak ekiditeko biomarkatzaile baliagarri eta fidagarriak identifikatzeko asmoz.

Hauskortasunarekin erlazioa erakutsi duten odol-markatzaileen artean hurrengoak nabarmentzen dira: glukosa, adipokinak (adiponektina, leptina...), hormona desberdinak

(hazkuntza eta sexu-hormonak), hanturarekin loturiko markatzaileak (TNF- $\alpha$ , IL-6 eta CRP) (Hubbard eta Woodhouse, 2010), nutrizio egoerarekin (D bitamina) loturiko markatzaileak eta osasun kardiobaskularrekin loturiko markatzaileak (kolesterola, triglizeridoak...), beste batzuen artean (Wagner, Cameron-Smith, Wessner eta Franzke, 2016).

Hauskortasun kognitiboari dagokionean, azken urteetan garunetik eratorritako faktore neurotrofikoaren inguruan ikertzen ari da, honek narriadura kognitiboarekin (Noble, Billington, Kotz eta Wang, 2011) eta zahartze-prozesuarekin (Lommatzsch eta lank., 2005; Ziegenhorn eta lank., 2007) duen erlazioa dela eta.

Brain derived neurotrophic factor (BDNF) neurotrofina bat da, plastikotasun neuronalean zeregin garrantzitsua betetzen duena (Egan eta lank., 2003). Bere eginkizunen artean neuronon hazkuntza eta neuronon zein sinapsien bereizketa bultzatzea da, neuronon biziraupena sustatuz (Buchman eta lank., 2016). Zahartze-prozesuan BDNF kontzentrazioa murrizten dela frogatu da (Lommatzsch eta lank., 2005; Ziegenhorn eta lank., 2007) eta murrizketa hori, era berean, narriadura kognitiboarekin, Alzheimer gaixotasunarekin, depresioa eta epilepsiarekin erlazioa duela erakutsi da (Noble eta lank., 2011). Hortaz, BDNF hauskortasun kognitiboaren diagnostikoa indartzeko markatzailea izan daitekeela proposatu da (Inglés eta lank., 2017).

Gainera, badirudi esku-hartze batzuk (ariketa fisikoa) eraginkorrak izan daitezkeela BDNF kontzentrazioan aldaketak sustatzeko (Coelho eta lank., 2013). Mekanismo fisiologikoak oraindik guztiz argi ez badaude ere, badirudi jarduera fisikoaren mekanismo neurobabeslea BDNF bezelako hazkunde-faktoreen adierazpen eta ekoizpenaren menpe dagoela (Kowiański eta lank., 2018). Hala ere, jarduera fisikoaren eragina molekula honetan eztabaidagarria da, ikerketa batzuek BDNFko atsedeen-mailetan aldaketak izan direla baieztatzen duten bitartean (Yarrow, White, McCoy eta Borst, 2010), beste batzuek ez baitute aldaketarik aurkitu (Fragala eta lank., 2014; Marston eta lank., 2019; Arrieta eta lank., 2020).

### **1.5 Hauskortasuna ekiditeko edo arintzeko ariketa fisikoko esku-hartzeak**

Hauskortasuna ikuspuntu global batetik ulertuta, hainbat dira hauskortasunari aurre egiteko proposatu diren esku-hartzeak adineko pertsonekin aurrera eramateko; ariketa fisikoa, elikadura, eta funtzio kognitiboa, besteak beste (Puts eta lank., 2017; Dent eta lank., 2019). Hauskortasunaren inguruko esku-hartzeak maiz ondorio kaltegarriak ekiditean, desgaitasun eta mendekotasun arriskua minimizatzean edo azpian dauden sintomak tratatzean oinarritzen dira (Apóstolo eta lank., 2018). Esaterako, ariketa fisikoak adineko

pertsonen hezur zein muskulu masa mantentzen ditu, honela hezur haustura eta erorketak bezalako ondorio kaltegarriak saihestuz (Tarazona-Santabalbina eta lank., 2016). Hala eta guztiz ere, orain arte ebidentzia maila altuena erakutsi duten esku-hartzeak ariketa fisikoan oinarriturikoak eta elikaduran oinarriturikoak izan dira (Apóstolo eta lank., 2018), esku-hartze kognitiboaren inguruko ebidentzia ahulagoa izanik (Dent eta lank., 2019). Izan ere, hauskortasuna tratatzeko esku-hartzeen inguruko azken urteetako berrikuspen sistematikoek jakinarazi dute osagai anitzeko ariketa fisikoak muskulu-endarra eta oreka handitu eta desgaitasuna eta hauskortasun handiko helduen erorketa kopurua gutxitu ditzakela (Cadore eta lank., 2013; Giné-Garriga, Roqué-Fíguls, Coll-Planas, Sitja-Rabert eta Salvà, 2014; De Labra, Guimaraes-Pinheiro, Maseda, Lorenzo eta Millán-Calenti, 2015). Hau dela eta, esku-hartze gehienek ariketa fisikoa barne hartzen dute zahartze-prozesuaren eragina lausotzeko eta ondorio kaltegarrien prebentziorako (Morley eta lank., 2013; Dent eta lank., 2019). Honen harira, 2019. urtean argitaratutako hauskortasunaren antzematerako eta kudeaketarako jarraibideetan tratamendua ariketa fisikoaren bidez izatea gomendatzen da; bereziki, osagai anitzeko ariketa fisikoko esku-hartzeen bidez, betiere indarraren entrenamendua barne (Dent eta lank., 2019). Horretaz gain, nahigabeko pisu galera edo desnutrizio egoeretan proteina edota kaloria osagarriak ematea gomendatzen da (Dent eta lank., 2019). Hala ere, aipatutako hauskortasunaren inguruko ikerketa gehienak komunitatean bizi diren pertsonetan gauzatu dira, HAE-tan bizi diren pertsonekin egindakoak urriagoak izanik.

Ariketa zein jarduera fisikoa adineko pertsonen funtzio fisikoa, kognitiboa zein afektibitate egoera hobetzeko edota mantentzeko eraginkorra dela ikusi da, biztanleria kaltebera barne (Wipfly eta lank., 2008; Ansai eta lank., 2017; Schwenk eta lank., 2010; Theill, Schumacher, Adelsberger, Martin eta Jäncke, 2013). Hainbat ikerketek ondorioztatu dute ariketa aerobikoak eta indar-ariketak konbinatzen dituzten osagai anitzeko ariketa fisikoko esku-hartzeak egokiak izan daitezkeela adineko helduen funtzio kognitiboa zaintzeko (Kirk-Sanchez eta McGough, 2014; Sáez de Asteasu, Martínez-Velilla, Zambom-Ferraresi, Casas-Herrero eta Izquierdo, 2017; Ray-Yau eta lank., 2018). Bestetik, jarduera fisikoak depresioa eta antsietatea arintzen dituela ikusi da (Wipfli eta lank., 2008). Hau bereziki interesgarria da, antsietatea eta depresioa bezalako nahasmenduak eta sintomak ohikoak baitira HAE-etan bizi diren egoiliarren artean eta bizi kalitate okerrago batekin lotura erakutsi dutelako (Smalbrugge eta lank., 2006; Seitz, Purandare eta Conn, 2010). Hala ere, ikerketa horiek gehienbat komunitatean bizi diren adineko pertsonetan burutu dira eta gutxi dira HAE-etan bizi diren pertsonen funtzio kognitiboan eta egoera afektiboan ariketa fisiko esku-hartzeek dituzten ondorioak ebaluatu dituztenak (Pereira, Rosado, Cruz-



Ferreira eta Marmeleira, 2018; Mimi, Tang, Wan eta Vong, 2014). Zentzu honetan aipatzekoa da aurten argitaratutako artikulu batean Arrieta eta lankideek (2020) 6 hilabeteko osagai anitzeko ariketa fisiko esku-hartze indibidualizatu eta progresibo bat eraginkorra dela frogatu dutela, funtzio kognitiboa mantendu eta bakardade-pertzepzioa murrizteko HAE-etan bizi diren egoiliarren artean.

Bestetik, ariketa fisikoko esku-hartzeen azken helburua funtzio fisikoa eta kognitiboa hobetzea bada ere afektibitate egoeraren hobekuntzarekin batera, epe luzearako helburua pertsonak beren eguneroko bizitzan fisikoki aktiboagoak izatera animatzea da. Ildo horretan, azterlan gutxi batzuek soilik aztertu dute ariketa fisikoko esku-hartzeek ohiko jarduera fisikoan duten eragina, azelerometro triaxialak bezalako neurri objektiboak erabiliz HAE bezalako inguruneetan (Arrieta eta lank., 2018b, 2018b; Lobo, Santos, Carvalho, & Mota, 2008).

Hala ere, orain arte ez da ondorioztatu zein jarduera fisiko mota den egokiena funtzio fisikoa zein kognitiboa zaintzeko HAE-etan bizi diren pertsonentzako. Ikerketen arteko barietatea parte-hartzaileen ezaugarrien, ikerketen diseinuen, esku-hartzeen ezaugarri eta aldagai nagusien desberdintasunetan aurkitu ohi da (Kelly eta lank., 2014).

Jarraian, hauskortasuna ekidin edo iraultzeko jarduera fisikoan oinarrituriko esku-hartze nagusi desberdinak deskribatuko dira: osagai anitzekoak, dual-task, eta oinez ibiltzeko esku-hartzeak.

### **1.5.1 Osagai anitzeko ariketa fisikoko esku-hartzeak**

Ariketa fisikoko esku-hartzeak, bereziki osagai anitzeko ariketa fisikoan (AF) oinarriturikoak eraginkorrak direla erakutsi dute komunitatean bizi diren heldu nagusien artean indarra, oreka eta funtzionaltasun orokorra hobetzeko (Chin a Paw, van Uffelen, Riphagen eta van Mechelen, 2008). Hau dela eta, gehien gomendatzen diren ariketa fisikoko esku-hartzeak osagai anitzekoak izaten dira non indarra, oreka edo gaitasun aerobikoa bezalako osagaiak konbinatu ohi diren. Bestetik, gaia ez da sakonki aztertu HAE-etan bizi diren pertsonetan, eta eskuragarri dauden ikerketek emaitza kontrajarriak erakutsi dituzte (Cadore, Rodriguez-Mañas, Sinclair eta Izquierdo, 2013; Serra-Rexach eta lank., 2011).

HAE-etan buruturiko ikerketen artean maiz ez dute intentsitatea zehazten. Hala ere, badirudi horietako askok intentsitate baxuko ariketa fisikoa erabili ohi dutela (Brett, Traynor eta Stapley, 2016) intentsitate moderatukoak, hau da, gomendatuenak HAE-etan urriagoak izanik (ACSM, 2013; De Souto Barreto eta lank., 2016). Hala eta guztiz ere,

oraintsu intentsitate moderatuan buruturiko 6 hilabeteko osagai anitzeko AF esku-hartze batek eraginkortasuna frogatu du egoitzetan bizi diren adineko pertsonen funtzio fisikoa eta kognitiboa hobetzeko (Arrieta eta lank., 2018b; Arrieta eta lank., 2020). Bestetik, orain arte publikatutako ikerketek egoera fisikoko osagaien konbinaketa desberdinak erabili dituzte; batzuk indarra eta oreka konbinatu dituzten bitartean, beste batzuk indarra eta gaitasun aerobikoa konbinatu dituzte, eta beste batzuk hiruen konbinaketa bat erabili dute. Era berean, egoera fisikoko osagai horiek lantzerako orduan maiztasuna (astean zenbat aldiz), bolumena (serie eta errepikapen kopurua) eta ariketa motak bezalako ezaugarriak desberdinak dira ikerketen artean. Osagai anitzeko AF-ko esku-hartzeen heterogeneotasun metodologikoa dela eta, gaur egun ez dago argi zeintzuk diren esku-hartze mota honen osagai zein ezaugarri egokienak adineko pertsonentzat. HAE-etako hauskortasun prebalentzia tasa altuak direla eta, ezinbestekoa da ingurune honetarako ariketa fisiko esku-hartze eraginkorrena zehaztea.

### **1.5.2 Dual-task (DT) esku-hartzeak**

Ariketa fisikoaren onurak entrenamendu fisikoa eta kognitiboa konbinatuz handitu daitezkeela proposatu dute hainbat autorek; hala ere, egungo ikerketek gaia sakonago ulertzeko beharra adierazten dute. Alde batetik, eskuragarri dauden berrikuspen sistematikoak funtzio fisikoan (Plummer, Zukowski, Giuliani, Hall eta Zurakowski, 2016) edo kognitiboan (Theill eta lank., 2013) zentratu dira nagusiki, berezita, eta ez dute behin betiko ondorioz atera.

Dual-task ahalmena entrenamendu espezifiko baten bidez hobetu daitezkeela azaldu dute hainbat ikertzaileek (Falbo, Condello, Capranica, Forte eta Pesce, 2016; Halvarsson, Franzén eta Stähle, 2015). Izan ere, esku-hartze mota horrek funtzio kognitiboa mantendu edo hobetu dezake (Langdon eta Corbett, 2012; Schaefer eta Schumacher, 2011), bereziki funtzio exekutiboa (Prakash, Voss, Erickson eta Kramer, 2015). Bi eredu iradoki dira, gaikuntzaren bidez dual-task ahalmenean egondako aldaketak azal ditzaketanak (Silsupadol, Siu, Shumway-Cook eta Woollacott, 2006). Atazak automatizatzeko ereduaren oinarria da banakako atazak automatiza daitezkeela eta antzeko hobekuntzak aurreikusten dituela, bai ataza bakar baten entrenamenduarekin, bai dual-task entrenamenduarekin (Silsupadol eta lank., 2006). Bestalde, atazak integratzeko ereduak bi atazak modu eraginkorrean integratzearen alde egiten du, dual-taskerako gaikuntzaren bidez, eta horrek dual-task probetan hobekuntzak egitea dakar (Silsupadol eta lank., 2006). Hortaz, dual-task errendimendua dual-task prestakuntzaren ondoren soilik hobetuko litzateke, baina ez ataza bakarrekoaren ondoren.

Azken eredu horren arabera, dual-task entrenamendua ataza bakarreko entrenamendua baino eraginkorragoa izan daiteke (Sisulpadol eta lank., 2009a; Sisulpadol eta lank., 2009b; Wollesen eta Voelcker-Rehage, 2014); izan ere, dual-task entrenamenduak baliabide kognitibo eta motor handiagoak eskatzen ditu, eta konplexuagoa da kontrol- eta koordinazio-eskakizunei dagokienez. Adibidez, Pellecchiak (2005) hobekuntza handiagoak ikusi zituzten gorputz-jarreraren oszilazioan, dual-task baldintzetan, ataza bakarreko entrenamenduarekin alderatuta, atazak integratzeko eredia babestuz eta funtzio fisikoek zein kognitiboek oraindik agerian utzi ez den modu batean elkar eragiten dutela iradokiz.

Hala ere, esku-hartze modalitateen eta aztertu diren parte-hartzaileen ezaugarrien heterogeneotasun handia dago: azterlan batzuek entrenamendu fisikoaren eta kognitiboaren eragina ebaluatu dute aldi berean, eta beste batzuek, berriz, modalitate sekuentziala erabili dute. Bestetik, ikerketa batzuek faktore fisikoak eta kognitiboak konbinatzearen ondorioak ohiko jarduerekin (Wollesen, Schulz, Seydell eta Delbaere, 2017) jarraitzen duen kontrol-talde batekin alderatu dituzte, eta beste batzuek jarduera fisikoekin (Ansai eta lank., 2017; Schwenk eta lank. 2010) edo kognitiboekin (Theill eta lank, 2013). Esku-hartze horiek narriadura kognitiborik gabeko (Plummer-D'Amato eta lank., 2012) eta narriadura kognitiboa duten adinekoetan (Schwenk eta lank. 2010) deskribatu dira.

### **1.5.3 Oinez ibiltzeko esku-hartzeak**

Osagai anitzeko eta dual-task bezalako esku-hartze modalitateek formakuntza eta material espezifikoaren beharra dute. Gainera, parte-hartzaileek gaitasun fisiko eta kognitiboko gutxieneko maila bat izan behar dute ariketak behar bezala bete ahal izateko, eta, beraz, mendekotasun-maila edo narriadura kognitibo handiagoa duten adinekoen talde handi batek zailtasunak izan ditzake parte hartu ahal izateko. Horrez gain, baliteke adineko pertsona batzuek ez izatea talde-jardueretan parte hartzeko edo ariketa espezifiko eta gidatuak egiteko gogorik, eta horrek eragotzi egin dezake pertsona horiek ariketa fisikoa egitea. Kasu horietan, oinez ibiltzea bezalako esku-hartze modalitateak egokiak izan litezke jarduera fisikoaren praktika bultzatzeko.

Bestalde, ibiltzea ariketa simple, natural eta familiar modu bat da, edozein adineko pertsonentzako ezaguna dena eta tolerantzia ona duena (Schoenfelder eta Rubenstein, 2004), baita mendekotasun eta narriadura kognitiboko maila handienak dituzten artean ere. Gainera, oinez ibiltzea eguneroko ohituretan erraz integra daiteke, eta arreta-

hornitzaileek edo horretarako jarraibideak eta gomendioak jaso dituzten familiako kideek gidatu dezaketena.

Ariketa fisikoko beste bi modalitateekin gertatzen den bezala, aurretik egindako ikerketen artean metodologia desberdinak aurki ditzakegu. Ikertzaile batzuek ibiltzea eta hizketa konbinatu dituzten bitartean (Cott eta lank., 2002; Friedman eta Tappen, 1991; Tappen, Roach, Applegate eta Stowell, 2000), beste batzuek indar-ariketekin (Morris eta lank., 1999; Schoenfelder eta Rubenstein, 2004), indar eta oreka ariketekin (Lazowski eta lank., 1999), edo interbentzio anitzekin (Schnelle eta lank., 1996; Urbscheit eta Wiegand, 2001) konbinatu izan dute. Oro har, HAE-etan esku-hartze bakar gisa erabiltzen duten ikerketa urrien artean, gehienek hobekuntzak aurkitu dituzte ibiltzearen erresistentzian (MacRae eta lank., 1996; Venturelli, Scarsini eta Schena, 2011) eta ibiltzeko ahalmenean (Koroknay, Werner, Cohen-Mansfield eta Braun, 1995).

Hau dena kontutan hartuz, gaur egun ariketa fisikoan oinarritutako esku-hartzeen eragina hauskortasunarekin loturiko parametroetan HAE-etan bizi diren pertsonetan ez dago guztiz argi, ikerketa gehieniak komunitatean bizi diren adineko pertsonetan gauzatu direlarik. Gainera, ikerketen arteko heterogeneotasuna parte-hartzaileen ezaugarriei, ikerketen diseinuei eta esku-hartzeen ezaugarriei dagokienez, emaitzen interpretaziorako orduan eragina izan lezake.

## **1.6 Aurkezten den tesiaren testuingurua**

Aurkezten den tesia AgeingOn izeneko Euskal Herriko Unibertsitatateko (UPV/EHU) ikerketa taldeak izandako ibilbidetik jaio da. Izan ere, gure ikerketa taldeak aurretik diseinatu eta balioztatu duen osagai anitzeko AF-ko esku-hartzeak hainbat onura erakutsi ditu adineko pertsonen funtzio fisikoan eta kognitiboan, afektibitate egoeran eta hauskortasunean, beste batzuen artean (Arrieta eta lank., 2018b). Ariketa fisikoaren onura horiek entrenamendu fisikoa eta kognitiboa konbinatuz handitu daitezkeelaren iradokizunei jarraiki (Plummer eta lank., 2016), interesgarria iruditu zizaigun esku-hartze horri aldibereko entrenamendu kognitiboa gehitzea (dual-task bezela ezagutzen dena). Era berean, balioztatutako osagai anitzeko AF-ko esku-hartzea, oinez ibiltzea bezalako esku-hartze batekin alderatzea beharrezkoa ikusten dugu, saio gidatuak gustuko ez dituzten pertsonen jarduera fisikoa egiteko tolerantzia ona duen modalitate sinple eta familiarra izan daitekeelarik.



## **2. HELBURUAK**

### **OBJECTIVES**



## 2 HELBURUAK/OBJECTIVES

Azken urteetan asko izan dira argitaratutako ikerketak ariketa fisikoaren eragina aztertzen dutenak hirugarren adineko pertsonetan. Hala eta guztiz ere, ikerketa gehienak komunitatean bizi diren adineko pertsonekin aurrera eramanez, HAE-etan bizi diren adineko pertsonak bezelako biztanleri zaurgarriekin gauzatutakoak urriagoak izanik. Honen harira, ariketa fisikoa, eta bereziki, osagai anitzeko ariketa fisikoko programak, funtzionaltasun galera ekidin edota lausotzeko eraginkorra izan daitezke frogatu da. Hala ere, orain arte ez da ondorioztatu zein jarduera fisiko mota den egokiena funtzio fisikoa zein kognitiboa zaintzeko HAE-etan bizi diren pertsonentzako.

Hau guztia kontutan hartuta, ikerketa proiektu honen helburu nagusia ariketa fisikoan oinarritutako hiru esku-hartze desberdinen eraginkortasuna aztertzea da HAE-etan bizi diren adineko pertsonetan.

Helburu espezifikoak dagokienez, hurrengokoak dira:

1. Osagai anitzeko ariketa fisikoko esku-hartze bati aldibereko entrenamendu kognitiboa gehitzeak ea dual-task ahalmena, funtzio fisiko eta kognitiboa, eta afektibitate egoera gehiago hobetu eta hauskortasuna gehiago murrizten dituen aztertzea HAE-etan bizi diren adineko pertsonetan.
2. Osagai anitzeko ariketa fisikoko esku-hartze baten eta ibiltzean oinarritutako esku-hartze baten eragina alderatzea hirugarren adineko egoitzetan bizi diren pertsonen funtzio fisiko eta kognitiboan, ohiko jarduera fisikoan, afektibitate egoeran eta bizikaltatean.
3. Osagai anitzeko ariketa fisikoko esku-hartze baten, dual-task esku-hartze baten eta ibiltzean oinarritutako esku-hartze baten eragina aztertzea BDNF kontzentrazio serikoan





### **3. MATERIAL ETA METODOAK**

#### **MATERIALS AND METHODS**



### 3 MATERIAL ETA METODOAK / MATERIALS AND METHODS

#### 3.1 Ikerketaren diseinua

Ikerketa proiektu hau aurrera eramateko material eta metodoen deskribapen xehetua hurrengo artikuluan argitaratu genituen: “A randomized controlled trial protocol to test the efficacy of a dual-task multicomponent exercise program in the attenuation of frailty in long-term nursing home residents: Aging-ON<sub>DUAL-TASK</sub> study” (Rezola eta lank., 2019).

Ikerketa proiektu hau Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) eta hirugarren adineko hainbat egoitzen arteko elkarlanaren fruitua da. Parte hartu duten 9 egoitzak hurrengoak izan dira:

- Matia Fundazioako 3 egoitza (Donostia):
  - Bermingham
  - Rezola
  - Lamourous
- Caser Fundazioako 2 egoitza:
  - Anaka (Irun)
  - Betharram (Hondarribia)
- Zorroaga egoitza (Donostia)
- DomusVi (Donostia)
  - Berra
  - Villa Sacramento
- Sanmarkosene (Errenteria)

Proiektuak (UPV/EHU) Gizakiekin zerikusia duten Ikerketetarako Etika Batzordearen (M10/2016/105) eta Agente Biologikoen eta Genetikoki Eraldatutako Organismoen Ikerketetarako Etika Batzordearen (M30/2016/106) oniritzia eskuratu zuen (1. eranskina). Bestetik, Matia Fundazioko Etika Batzordean ahoz zein idatziz aurkeztu ondoren, honen oniritzia ere izan zuen (2. eranskina). Ikerketa proiektuaren protokoloa “Australian and New Zealand Clinical Trials Registry”-n eta “Clinical Trials”-en erregistratu zen “ACTRN12618000536268” eta “NCT03996083” kodeekin, hurrenez hurren.

Lehendabiziko pausua proba pilotu bat egitea izan zen. Horretarako harremanetan jarri ginen Matia Bermingham egoitzako zuzendariarekin proba pilotoa azaltzeko. Proba pilotoak 2 hilabete iraun zuen, non prestatutako balorazio testak eta saioetarako ariketak probatu eta doitu egin ziren.

Behin dena prest zegoenean ikerketa proiektuari hasiera emateko, Matia Institutoko kideek Matia Fundazioako egoitza guztiei azaldu zieten proiektuaren nondik norakoak eta parte hartzeko irizpideak betetzen zituzten egoilarren kopurua eskatu zitzaien. Errekurtsoen optimizazioari begira eta randomizazioa 3 taldeetan izan behar zela kontutan izanik, egoitza bakoitzean barneratze irizpideak betetzen zituzten 10 pertsonako gutxienezkoa jarri zen. Kopuru hori baino pertsona gutxiago zituzten egoitzek ezin izan zuten parte hartu proiektu honetan. Jarraian, egoitza bakoitzera bertaratu eta proiektua idatziz zein hitzez azaldu zitzaien.

Caser Fundazioan, Zorroaga, DomusVi eta Sanmarkoseneko egoitzetan antzeko prozesua jarraitu zen etika batzordea izan ezik, non UPV/EHU-ko etika batzordeen onarpenarekin nahikoa izan zen eta ez zen beharrezkoa izan barne etika batzordetara jotzea. Egoitza hauetan ere bilera bat antolatu zen bertako talde teknikoarekin (zuzendariak, sendagileak, erizainak, fisioterapeutak, psikologoak, eta jarduerak aurrera eramaten dituzten monitoreak) proiektua azaltzeko. Bertan, barneratze irizpideak betetzen zituzten parte-hartzaile kopurua eskatu zitzaien.

Behin parte-hartzaile posibleen kopurua zehaztu zenean, egoitza bakoitzeko arduradunei eskatu zitzaien barneratze irizpideak betetzen zituzten pertsonen proiektuaren berri ematea eta informazio gehiago izateko bilera batera joateko gonbidapena luzatzea. Antolatutako bileretara, partaideetaz gain, beraien senideak ere gonbidatuak izan ziren. Bertan, ikerketa proiektuaren xehetasunak azaldu zitzaizkien eta izan zezaketen zalantzak ere bilera horietan argitu ziren. Behin dena azalduta, ikerketa proiektuan parte hartzeko baimen informatuak banatu zitzaizkien (3. eranskina). Ezintasun fisiko zein kognitiboen ondorioz baimen informatua sinatzeko gai ez ziren pertsonen kasuan, beraien familiako kide edota tutore legal-ak sinatu zuten. Baimen informatuan ikerketaren xehetasun nagusiak azaltzen ziren eta parte-hartzea borondatezkoa eta edozein momentutan uko egiteko aukera zegoela era argi batean bermatzen zen. Bestetik, argazki edota bideoak ateratzeko baimenaren dokumentua banatu zitzaien (4. eranskina). Baimen informatua sinatzea parte hartzeko ezinbestekoa zen bitartean, argazki eta bideoen baimena sinatzea guztiz aukerakoa zen.

Ikerketa hau ausazko entsegu kliniko bat izan zen. Hortaz, hasierako balorazioak egin ondoren, partaideak hiru taldeetan banatu ziren zoriz 1:1:1 ratioa errespetatuz eta generoaren pareko banaketa bermatuz. Hiru interbentzio esku-hartzeak hurrengoak izan ziren: osagai anitzeko ariketa fisikoko (AF) esku-hartzea, dual-task esku-hartzea, eta oinez ibiltzeko esku-hartzea.

### 3.2 Laginaren ezaugarriak

Partaideek bete beharreko barneratze irizpideak ikerketa proiektuan hurrengoak izan ziren:


- 70 urte beteta izatea
- Mini-examen cognoscitivo-35 (MEC-35) testean (Lobo eta lank., 1999) 20 puntu izatea gutxienez
- Barthel eskalan (Wade eta Collin, 1988) 50ko gutxienerako puntuazioa izatea
- Autonomoki aulkitik altxa eta 10 metro ibiltzeko gaitasuna izatea laguntza teknikoren batekin edo gabe

Bestalde, hurrengo irizpideak betetzen zituzten pertsonak ezin izan zuten parte hartu:

- Osasun arazoak direla medio, ariketa fisikoa egiteko kontraindikazioa zutenak. Honela, ondorio kaltegarrien arriskuak onura posibleak baino nabarmenagoak ziren kasu horiek ezin izan zuten parte hartu: bihotz-gutxiegitasun sintomatikoa, angina ezegonkorra ...
- Gaixotasun psikiatriko zein dementzia aurreratua zuten pertsonak


Azkenean, barneratze irizpideak betetzen zituzten 125 pertsonak hartu zuten parte ikerketan (85 emakume eta 40 gizon). Adinaren batzbestekoa 84,3 urtekoa izan zen eta laginaren % 68-a emakumezkoek osatzen zuten.

**2. Irudian** ikus daitekeenez, parte-hartzaile gehienak 80-89 urte bitarteko tartean kokatzen ziren (67 pertsona). Bestetik, 70-79 urte bitarteko parte-hartzaile kopurua 28 eta  $\geq 90$  urte bitartekoa 30-ekoa izan zen.




**2. Irudia.** Parte-hartzaileen banaketa adin tarteen arabera

3. Irudian parte hartzaileen adin tarteak irudikatu dira sexu banaketaren arabera. Honela, emakumezkoen % 58,3 80-89 adin tartean kokatzen zen, % 29,8 70-79 adin tartean eta % 11,9k 90 urte edo gehiago zituen. Aldiz gizonezkoetan, parte-hartzaile kopuru bera izan ziren 70-79 eta 80-89 urte bitarteko adin tartetean (% 43,9) eta parte-hartzaile gutxiago zeuden 90 urte edo gehiagokoak (% 12,2).



3. Irudia. Parte-hartzaileen banaketa adin tarte eta sexuaren arabera

Egoitza bakoitzaren zein bertan bizi diren pertsonen ezaugarrien arabera, egoitza bakoitzean parte hartu zuten pertsonen kopurua ere desberdina izan zen (4. Irudia). Caserreko egoitzetatik (Anaka eta Betharram) 25 pertsonek hartu zuten parte ikerketa proiektu honetan. Bestetik Matia Fundazioko egoitzetatik (Lamorous, Bermingham eta Rezola) 29 pertsonek hartu zuten parte. Zorroaga izan zen parte-hartze handiena izan zuen egoitza 26 parte-hartzaileekin. Sanmarkosene egoitzako 16 pertsonek hartu zuten parte. Azkenik, DomusVi egoitzetan (Berra eta Villa Sacramento) 29 parte-hartzaile izan ziren.



4. Irudia. Egoitzen araberako parte-hartzaileen banaketa

### 3.3 Balorazioak

Barneratze irizpideak bete eta parte hartzeko baimena eman zuten parte-hartzaileen hasierako egoera neurtzeko lehendabiziko neurketak egin ziren. Ondoren, 3 hilabetez ariketa fisikoko esku-hartzea burutu eta 3. hilean neurketak egin ziren berriro. Horrez gain, azelerometro bat aste betez jarri zitzaien bai interbentzioa hasi baino lehen eta ondoren, eta oinez ibiltzeko taldearen kasuan, baita interbentzioaren 7. astean ere. Interbentzioak amaitzean, parte-hartzaile guztiei parte-hartze diploma bat banatu zitzaien (5. eranskina).

Partaideen balorazioa dimentsio desberdinetan oinarritu zen, arlo fisikoa ez ezik, arlo kognitiboa eta afektibitate egoera ere kontutan hartuz. Zentzu honetan, aipatzekoa da erabilitako test eta proba guztiak adineko pertsonentzako doituak eta balidatuak direla.

Balorazioen fidagarritasuna eta segurtasuna bermatzeko hainbat jarraibide izan ziren kontutan:

- Balorazioak aurrera eraman zituzten ikertzaileek test guztien prozedurak adostu eta ikasi zituzten.
- Probak eta saioak emateko espazioak egokiak eta ziurrak izan ziren (lurra laua eta oztopo gabekoa eta abar). Aulkiak ere sendoak eta pisutxuak izatea garrantzitsua zen segurtasuna bermatzeko. Espazioek pribatutasuna izatea eta soinu askorik gabekoak izan ziren, tenperaturarekin batera, parte -artzaileak eroso egoteko (5. Irudia).
- Osasun arrazoiengatik probaren bat ez egitea aholkatzen zitzaien pertsonak antzematen saiatu zen probak burutu aurretik egoitza bakoitzaren sendagilearekin: bihotz gutxiegitasuna, mina artikulazioetan edo bularraldean zutenak, bertigoak edo angina bat pairatu zutenak ariketa egin bitartean edo kontrolatu gabeko odol-hodietako presio altua zutenak.
- Parte-hartzaileek ariketa fisikoa egiteko arropa aproposa eramatea eskatu zitzaien (gonak, oinari ondo eusten ez dioten etxeko zapatilak ...ekidinez). Hainbat kasuetan, hau gogoratu behar izan zitzaien ikerketan zehar.





**5. Irudia.** Balorazioak gauzatu ziren espazioa Sanmarkosene egoitzan

Interbentzio desberdinen eragina neurtzeko, jarraian azalduko diren balorazioak burutu ziren bai ariketa fisikoko esku-hartzea hasi baino lehenago eta bukatu ondoren hiru hilabetetara. Neurketa hauek partaideen egoitzetan bertan burutu ziren, horretarako egokitutako espazioetan. Proba horien artean gorputz-osaera, odol analisiak eta test neuropsikologikoak beraien logeletan edota zentroko erizaintzan burutu ziren. Proba fisiko gehienak, dual-task probak eta hauskortasun testak egoitza bakoitzeko gimnasio edota gela zabal batean burutu ziren. Aldiz, 6 minutuko testa terraza, garaje zein pasilloetan burutu zen egoitza bakoitzeko errekurtsoen arabera.

Proben ordenari dagokionez, lehendabizi gorputz-osaera eta odol-analisiak egin ziren eta bertan jarduera fisikoa neurtzeko azelerometro bat jarri zitzairen astebeterako. Ondoren, test fisiko, dual-task, eta neuropsikologikoak burutu zituzten, hauskortasun eskalekin batera.

### **3.3.1 Historia klinikotik ateratako aldagaiak**

HAE-etan egoilar bakoitzaren datu klinikoak jaso ohi dituzte, hauen ongizatea bermatu eta dituzten beharrak asebetetzeko asmoz. Informazio hau jakitea ere oso garrantzitsua da jarduera fisikoan oinarrituriko interbentzio bat diseinatzerako orduan zein honen eraginkortasuna neurtzeko, osasunarekin erlazionaturiko parametroak baitira.

- **Prozedura:** historia klinikoaren datuak mediku zein erizainek eskuratu zituzten egoitza bakoitzeko programa informatikotik.
- **Aztertutako aldagaiak:**
  - Datu orokorrak: jaiotze data, hezkuntza maila

- Barthel Index test-eko puntuaketa (Wade eta Collin, 1988) (interbentzioa hasi zen egunekoa)
- Mini-examen cognoscitivo (MEC) test-eko emaitzak (Lobo eta lank., 1999) (interbentzioa hasi zen egunekoa)
- Gertatutako heriotzak eta datak (interbentzioa hasi zenetik sei hilabetetara)

### 3.3.2 Antropometria

Partaideen ezaugarri antropometrikoak ezagutzea ezinbestekoa da osasun-egoeraren, tratamenduen bilakaeraren eta egoera funtzionalaren adierazle baitira (Navarro eta Marchini, 2000). Antropometria neurtzeko erabilitako metodoak ez dira ez mingarri ezta erasokorrak ere, HAE-etan bizi diren adineko pertsonentzat ziurrak suertatuz.

- **Prozedura:** neurketa antropometriko guztiak gosaldu baino lehen egin ziren, neurketak ahalik eta fidagarrien izateko. Lehen aipatu bezela, hauek normalean partaide bakoitzaren gelan burutu ziren partaideak ahalik eta erosoan sentitzeko eta pribatutasuna errespetatzeko asmoz.
- **Erabilitako materiala:**
  - Tallimetroa (Seca 213, Hamburgo, Alemania)
  - Balantza (Omron HN288, Osaka, Japonia)
  - Zinta metrikoa (Lufkin W606PM, Apex Tool Group, Maryland, EEBB)
- **Aztertutako aldagaiak:**
  - **Altuera:** partaideen altuera tallimetroaren bitartez neurtu zen cm-tan (mm bateko zehaztasunarekin). Parte-hartzaileei ahalik eta zuzenen mantentzeko eskatu zitzairen, oinak elkarren ondoan, besoak gorputzaren alboetan luzaturik eta bizkarra eskalaren kontaktuan jarritz. Begirada aurrera mantenduz eta burua “Frankfurt-en planoan” mantenduz, neurketa buruko punturik altuenetik (vertex-a) neurtu zen parte hartzaileak arnasa sakona hartzerakoan.
  - **Pisua:** partaideen pisua balantza digitalaren bitartez neurtu zen kilotan adierazita. Baskularen zehaztasuna 100 g-koa da eta 180 kg arte neurtzeko balio du. Horretarako, parte-hartzaileei zapatak eta txaketak kentzeko eskatu zitzairen, baita poltsikoetan izan zezaketen objektuak ere (txanponak, giltzak eta abar). Balantzara igotzen lagundu ondoren, 4-5 segunduz geldirik mantentzeko eskatu zitzairen balantzaren pisuaren zenbakia iraunkor mantendu arte.

- **Gorputz-masaren indizea (GMI):** GMI hurrengo formula erabiliz kalkulatu zen aurretik hartutako pisua (kg) eta altueraren (m) balioetaz baliatuz:

$$\text{GMI} = \text{pisua (kg)} / \text{altuera (m)}^2$$

- **Gerri-perimetroa:** gerri-perimetroa cm-tan neurtu zen. Horretarako zilborra hartu zen erreferentzia bezela zinta metrikoa kokatzeko. Partaidearen albo batean jarrita, partaideari arnasa normal hatzeko eskatu zitzaion neurketa hartzeakoan.
- **Aldaka-perimetroa:** aldaka-perimetroa neurtzeko ipurmasailaren alderik nabarmenena hartu zen erreferentzia bezela aldakaren zabalera maximoa neurtzeko. Gerriaren perimetroa neurtzeko prozedura bera jarraitu zen, partaidearen alde batean jarrita. Perimetro hauek cm-tan neurtu ziren.
- **Gerri-aldaka indizea:** gerri-aldaka indizea hurrengo formularen bitartez kalkulatu zen gerri eta aldakaren perimetroen neurketak erabiliz:

$$\text{Gerri-aldaka indizea} = \text{gerri-perimetroa (cm)} / \text{aldaka-perimetroa (cm)}$$

### 3.3.3 Odol analisiak

Hauskortasuna eta narriadura kognitiboarekin lotura izan dezaketen hainbat biomarkatzaile proposatu dira azken urteetan. Ikerketa honetan BDNF neurtzea erabaki zen.

- **Prozedura:** odol laginak goizean goiz atera ziren baraurik gosariak baino lehen. Egoitzaren arabera odol laginak partaide bakoitzaren logelan edota erizaintzan atera zitzaizkien bi edo hiruko taldeetan. Laginak Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Medikuntza eta Erizaintzako fakultatera eraman ziren, bertan analisiak aurrera eramateko. Odol lagin hodiak 10 minutuz zentrifugatu ziren 5000 b/min-ra. Parte-hartzaile bakoitzaren seruma bereizi ondoren, bi alikuotetan gorde ziren -80°C-tara. Behin odol laginak jasota (interbentzio aurrekoak zein bukaerakoak), BDNF-ren kontzentrazioak neurtu ziren Enzyme-linked immunosorbent assay (ELISA) teknika erabiliz interbentzioaren efektua neurtu ahal izateko.
- **Aztertutako aldagaiak:** BDNF (ng/mL)

### 3.3.4 Egoera fisikoa

#### 3.3.4.1 Short Physical Performance Battery (SPPB)

SPPB-a adineko pertsonen behe gorputzeko gaitasuna neurtzeko balio duen test multzo objetibo eta erabilienetarikoa da (Guralnik eta lank., 2000). Test multzoak fidagarritasun altua erakutsi du eta aurrera eramateko eskatzen duen denbora txikia da, erraza da pasatzeko eta hortaz oso praktikoa gertatzen da. Horretaz gain, gaitasun funtzionalean aldaketa txikiak antzemateko sentikortasun handia duela ere frogatu da (Da Câmara, Alvarado, Guralnik, Guerra eta Maciel, 2013). SPPB-ak hainbat proba barne hartzen ditu, besteak beste, bost altxa eta eseri, oreka estatikoa eta martxa. Puntuazio totala 0tik 12ra doa, non geroz eta puntuazio altuagoa, orduan eta ahalmen funtzional hobeagoa adierazten duen. Puntuazio baxuak, ordea, desgaitasun, eguneroko jarduerak betetzeko zailtasun, mugikortasun arazo, instituzionalizazio, ospitalizazio zein heriotzarekin lotuak izan zira (Guralnik eta lank., 2000).

- **Testa aurrera eramateko materiala:**
  - Altxa eta eseri testerako besaurrerik gabeko aulki bat
  - Kronometroa
  - Zinta metrikoa
  - Zinta itsaskorra
- **SPPB-ko testen deskribapena:**
  - **Altxa-eseri testa:**
    - **Prozedura:** parte-hartzailea aulkian esertzeko eskatu zitzaion, bizkarra zuzen, besoak bularrean gurutzaturik eta bi oinak lurrean ondo bermatuta zituelarik. Ebaluatzaileak hasteko esaterakoan, parte-hartzailea aulkitik altxa eta berriro eseri behar zen ahalik eta azkarren bost errepikapen oso egin arte, besoak bularrean gurutzaturik mantenduz. Hasi aurretik parte-hartzaileari proba azaldu zitzaion eta errepikapen bat edo bi egiten utzi mugimendua barneratzeko eta proba ulertu duela baieztatzeko nekerik sortu gabe. Parte-hartzaileari prest dagoen galdetu ostean, honen gorputz-enborra aurrerantz eramaten hasterakoan kronometroari eman zitzaion eta bostgarren errepikapenean esertzerakoan gelditu egin zen. Parte-hartzaileak jakiteko zenbat errepikapen

falta zitzaizkion, ebaluatzaileak ozen kontaktzen zituen. Minutu bat baino gehiago luzatzen bazen edota parte-hartzaileak besoak erabiltzen bazituen proba gelditu egiten zen. Proba hau burutzeko aulkia paretaren aurka kokatu zen, aulkiaren ezaugarrien arabera hau atzeraka mugitu egiten zelako, parte-hartzailea arriskuan jarriaz. Bestetik ebaluatzailea parte-hartzailearekiko albo batean kokatzen zen, oreka galera gertatu ezkeroko parte-hartzailea heltzeko eta aulkian esertzen laguntzeko helburuarekin.



6. Irudia. SPPB-ko altxa-eseri testa.

- **Puntuazioa:** puntuazio minimoa zero eta gehienez lau puntukoa da. Parte-hartzaileak minutu bat baino gehiago luzatu baldin bazen edota eskuak erabili gabe aulkitik altxatzeko gai ez bazen, puntuazioa 0 izan zen. Bost altxa-eseriak burutzeko 16.7 segundo baino gehiago behar izan bazituen, puntuazioa bat izan zen, bi puntu 13.70-16.69 segundo bitartean, hiru puntu 11.20-13.69 segundo bitartean eta lau puntu 11.19 segundo baino gutxiago behar izan bazituen. Geroz eta puntuazio altuagoa, behe gorputz adarreko indar (potentzia) handiagoa adierazten du.
- **Oreka estatikoa:**
  - **Prozedura:** parte-hartzailea zutik jarzteko eskatu zitzaion aulki edo heldukera duen elementu finko baten aurrean. Proba honetan hiru posizio desberdinetan 10s mantentzea eskatu zitzaion errazanetik hasita zailenera. Parte-hartzailea hurrengo posizioa pasako da aurreko posizioa 10 segunduetan zehar mantentzeko gai zain bada. Lehenengo posizioa bi oinak elkarren ondoan jartzea

zen (7. Irudia). Bigarrena, bi oinak kontaktuan mantenduz, oin bat bestea baino aurreratuago jartzea zen (semi-tandem posizioa), aurreraturiko oinaren orpoa beste oinaren puntaren altueran gelditzen zelarik. Azkenik, hirugarren posiziorako oin bat bestearen aurrean jarri behar zeun (tandem posizioa), bi oinen artean tarterik utzi gabe.



7. Irudia. SPPB-ko oreka estatikoaren hiru posizioak

- **Puntuazioa:** parte-hartzaileak 10 segundu baino gutxiago irautekotan lehenengo posizioan, ez zuen punturik jaso (zero). Aldiz, lortu bazuen puntu bat jaso zuen lehenengo posizioan, bi puntu bigarren posizioan, hiru puntu hirugarren posizioan (3-9.99 segundo bitartean) eta lau puntu hirugarrenean 10 segunduz posizioa mantentzea lortu baldin bazuen. Zenbat eta puntuazio altuagoa, orduan eta oreka estatiko hobea adierazten du.
- **Martxa-abiadura:**
  - **Prozedura:** parte-hartzaileari lau metroko distantzia ibiltzeko eskatu zitzaion bere ohiko abiaduran. Ibiltzeko aparatu osagarririk erabili ohi badu, proban ere erabiltzeko aukera ematen zitzaion. Proba hau bi aldiz burutuko zen eta denbora (s) azkarrena aukeratu zen (8. Irudia).
  - **Puntuazioa:** parte-hartzailea ez bazen gai lau metroak egiteko, ez zuen punturik jaso (zero). Ibiltzeko gai bazen eta 8.7 segundutik gora behar izan bazituen, puntu bat jaso zuen; bi puntu 6.21 eta 8.79 segundo bitartean behar bazituen; hiru puntu 4.82 eta 6.20 segundo behar bazituen; eta lau puntu 4.82 segundo baino gutxiago behar bazituen. Zenbat eta puntuazio altuagoa, orduan eta ibiltzeko gaitasun handiagoa adierazten du.



**8. Irudia.** SPPB-ko martxa-abiadura proba

- **Aztertutako aldagaiak:** azpi-test bakoitzeko puntuazioa eta puntuazio totala

#### **3.3.4.2 Senior Fitness Test (SFT)**

SFT-a espezifikoki adineko pertsonen egoera fisikoa aztertzeko diseinaturiko test multzo segurua da (Rikli eta Jones, 2001). Test multzoak hainbat test barnehartzen ditu, ahalmen fisiko desberdinak ebaluatzeko asmoz, hurrenez hurren, goiko zein beheko adarren indarra, ahalmen aerobikoa, oreka eta malgutasuna. Test honetan eman daitekeen ikasketa prozesua ekiditeko eta interbentzioaren eragina ahalik eta zehatzen neurtu ahal izateko testak bi edota lau aldiz burutu ziren bi egun desberdinetan (autoreek proposatzen zuten bikoitza alegia). Erabilitako materiala bera izan zen bai interbentzio aurreko zein interbentzio ondorengo balorazioetan.

- **Testa aurrera eramateko materiala:**
  - Beso flexiorako mankuernak (Valeo HW5): bost libra emakumezkoentzat (2.27 kg) eta zortzi libra gizonezkoentzat (3.63 kg)
  - Altxa eta eseri testerako besaurrerik gabeko aulki bat
  - Zinta metrikoa
  - Zinta itsaskorra
  - Kronometroa
  - Bost kono
  - Polar pultsometroa (Polar ft4, Polar, Finlandia)

- **SFT-ko testen deskribapena:**

- **Altxa-eseri testa:**

- **Prozedura:** parte-hartzaileari aulkian esertzeko eskatu zitzaion, bizkarra zuzen, besoak bularrean gurutzaturik eta bi oinak lurrean ondo bermatuta zituelarik. Ebaluatzaileak hasteko esaterakoan, parte-hartzailea aulkitik altxa behar behar zen besoen laguntzarik gabe eta berriro eseri 30 segundutan zehar, ahalik eta errepikapen gehien eginez. Hasi aurretik parte-hartzaileari proba azaldu eta 2 edo 3 errepikapen egiten utzi zitzaion mugimendua barneratzeke eta proba ulertu zuela baieztatzeke nekerik sortu gabe. Segurtasuna bermatzeko SPPB-ko altxa-eseri probako irizpide berdinak jarraitu ziren.
- **Puntuazioa:** 30 segundotan zehar buruturiko errepikapen kopurua erregistratu zen. Proba honetan ez dago maximorik. Denbora amaitzerakoan parte-hartzailea zutikako posiziora iritsi baldi bazen (guztiz bertikalean) errepikapena ontzat eman zen. Parte-hartzaileak ez bazuen eskurik gabe altxatzea lortzen puntuazioa 0 izan zen. Zenbat eta puntuazio altuagoa, orduan eta indar (erresistentzia) handiagoa adierazten du behe gorputz-adarrean.

- **Beso-flexio testa:**

- **Prozedura:** parte-hartzailea aulkiaren erdialdean esertzeko eskatu zitzaion, bizkarra zuzen mantenduz, pisua beso dominantearekin hartuta eta izterraren alboan kokaturik eta esku ahurra gorputzari begira izanik. Ebaluatzaileak esandakoan, parte-hartzaileak pisua biratu behar zuen esku ahurra goruntz begira jarriaz eta ukalondoa tolestuz pisua sorbaldaruntz altxatu lerro zuzenean eta ukalondoa gorputzarekin kontaktuan mantenduz. Behin pisua sorbaldara igo zuenean hasierako posiziora bueltatu behar zen pisuaren jaitsieran abiadura kontrolatuz lesioak ekiditeko. Aurreko proban bezela, proba hasi aurretik parte-hartzaileari hau ahoz azaldu zitzaion eta errepikapen batzuk egiteko aukera izango zuen ulertu duela ziurtatzeko. Behin betiko proban parte-hartzaileak 30 segundu izan zituen ahalik eta errepikapen gehien egiteko. Materialetan aipatu bezela, emakumeek 2.27 kg-ko pisuarekin burutzen zuten proba eta gizonezkoek 3.63 kg-koarekin. Parte-hartzailearen segurtasunerako, ebaluatzailea parte-hartzailearen albo batean kokatzen zen, besoaren mugimendua kontrolatzeko. Horretaz gain, parte-hartzaileari mugimendua kontrolatzeko eskatzen zitzaion, sorbalda zein izterrean kolperik ez emateko helburuarekin (9. Irudia).





9. Irudia. SFT-ko beso-flexio testa



- **Puntuazioa:** 30 segundotan zehar buruturiko errepikapen kopurua erregistratu zen. Denbora amaitzerakoan parte-hartzaileak pisua sorbaldaraino altxatzea lortu baldin bazuen, errepikapena ontzat eman zen. Parte-hartzaileak ez badu pisua sorbaldaraino altxatzea lortu puntuazioa 0 izan zen. Zenbat eta puntuazio altuagoa, orduan eta indar erresistentzia handiagoa adierazten du goiko gorputz adarrean.
- **Sei minutuko testa:**
  - **Prozedura:** proba hau aurrera eramateko angeluzuzen bat (4.57 x 18.38 metro) edota pasillo luze bat (30 x 2 metro) behar da. Bestetik, ezinbestekoa da zorua laua eta ez irristakorra izatea, parte-hartzaileen segurtasuna bermatzeko. Egoitzen ezaugarri desberdinak direla eta, proba hainbat espazioetan aurrera eraman genuen, besteak beste, egoitzetako terraza, pasillo edota garajeetan. Terrazen kasuan, eguraldiaren arabera planifikatu ziren probak, euria zein haizea ekiditeko helburuarekin. Egoitza guztietan proba berdina egin ahal izateko, proba lerrozuzenean egitea erabaki genuen, 30 metroko pasillo bat lortu baitgenuen egoitza bakoitzean, ez ordea angeluzuzena. Zinta metrikoaren laguntzaz 0, 0.5, 29.5 eta 30 metroetan markak jarri ondoren, kono bana jartzen zen 0.5 eta 29.5 metroetan, metro erdi bat utziz buelta eman ahal izateko mutur bakoitzean. Espazioak baimentzen duen guztietan, aulkiak banatuko dira pasilloan zehar parte-hartzaileak atsedean hartzeko beharra duenerako edota proba bukatzen denerako. Ebaluatzaileak hasiera ematerakoan, parte-hartzailea sei minutuz ibili beharko da eta ahalik eta joan-etorri (metro) gehien egin zehaztutako ibilbidean. Parte-hartzailearen segurtasuna bermatzeko, ebaluatzaile bat bere ondoan

joango da ibilbide guztian zehar, oreka galera edo estropuak aurreikusi edota ekiditeko. Honez gain, pate hartzaileei pultsometro bat jarriko zaie bihotz maiztasuna kontrolatzeko. Parte-hartzaileari gehiegizko bihotz maiztasuna edota esfortzua nabaritzuz gero, atsedenaldi luzea ematen zitzaion edota proba eten egiten zen. Ebaluatzaileak joan-etorri bakoitza kronometratu eta erregistro orrian apuntatuko du. 3., 4. eta 5. Minutuetan testak zehazten dituen jarraibideak emango zaizkio, proba bukatzeko falta den denbora ere adieraziz. Sei minutuak bukatu bezain laister, parte-hartzailea gelditu den toki berean eseriko da gerturatuko zaion aulki batean. Bihotz maiztasuna proba hasi baino lehen, bukatu bezain laister eta errekupeketa minutu baten ondoren jasoko da. Parte-hartzaile bakoitzak proba hau bi aldiz egin burutu zuen egun desberdinetan, ikasketa prozesua minimizatzeko asmoz (10. Irudia).

- **Puntuazioa:** sei minutuak igaro ondoren edota proba bukatu ostean ibilitako metroak jaso ziren, egin dituen joan-etorri kopuruaz baliatuz eta ibilbidearen distantziarekin biderkatuz. Azkeneko joan-etorria ez bazen osorik betetzen, zinta metrikoa erabili zen metro horiek kalkulatzeko. Proba egiten den bi egunetatik, distantzia handiena egin zena aukeratu zen. Zenbat eta metro gehiago bete sei minutuetan zehar, orduan eta ahalmen aerobiko hobeagoa adierazten du.



10. Irudia. SFT-ko sei minutuko testa

- **Aztertutako aldagaiak:** azpi-test bakoitzeko emaitza dagokion unitatean

### 3.3.4.3 Timed Up and Go (TUG)

TUG test kliniko bat da, adineko pertsonen gaitasun funtzionala eta erortzeko arriskua neurtzeko erabili ohi dena (Podsiadlo eta Richardson, 1991; Bischoff eta lank., 2003; Bohannon, 2006). Mundu mailan erorketen prebentziorako gidaliburuek hirugarren adineko pertsonengan oreka zein ibiltzeko arazoak identifikatzeko TUG testa proposatzen

dute (American Geriatrics Society, Geriatrics Society & American Academy Of Orthopaedic Surgeons Panel On Falls Prevention, 2001). Ildo honetan, TUG testaren denboraren eta aurretik izandako erorketen arteko lotura positiboak aurkitu dira (Beauchet eta lank., 2011). Horretaz gain, testaren etorkizuneko erorketak aurreikusteko gaitasunari dagokionean, hau erorketak aurreikusteko erabilgarria dela frogatu da ahalmen funtzional baxua duten hirugarren adineko pertsonetan (Schoene eta lank, 2013).

- **Testa aurrera eramateko materiala:**
  - Besaurrerik gabeko aulki bat
  - Kronometroa
  - Zinta metrikoa
  - Zinta itsaskorra
  
- **Prozedura:** parte-hartzaileari aulkian esertzeko eskatu zitzaion, bizkarra aulkiaren bizkarraldean jarriaz eta bi oinak lurrean bermatuta zituelarik. Ebaluatzaileak esaterakoan, parte-hartzailea aulkitik altxa eta hiru metro ibili behar zen, lurrean zegoen konoari buelta eman, bueltatu eta berriro aulkian eseri. Proba parte-hartzailearen ohiko abiadura burutu zen. Ebaluatzailea uneoro parte-hartzaitetik gertu mantentzen zen segurtasuna bermatzeko eta honek proba betetzeko behar izan zuen denbora kronometratu zuen. Proba hau bi aldiz burutu zen bi egun desberdinetan eta denbora hoberena aukeratu zen. Proba betetzeko geroz eta denbora gutxiago behar izan, orduan eta oreka dinamiko hobea adierazten du (11. Irudia).
  
- **Aztertutako aldagaiak:** testa egiteko denbora totala (s) eta abiadura hurrengo formula erabiliz: testaren distantzia (3m x 2= 6m) / testa egiteko denbora denbora (s).



10. Irudia. Timed Up and Go testa (TUG)

#### 3.3.4.4 Berg oreka eskala

Berg oreka eskala 14 probaz osaturiko eta oreka estatikoa neurtzeko balidatutako testa da. Proba bakoitzeko puntuazio minimoa zero eta maximoa lau da (Berg, Wood-Dauphinee, Williams eta Maki, 1992). Hortaz, puntuazio minimoa zero eta maximoa 56 dira, non geroz eta puntuazio altuagoak oreka estatiko hobeagoa adierazten duen. Nahiz eta erorketa arriskuarekin harremana izan dezakela adierazi den, gaur egun ez dago ebidentzia nahikorik hau baieztatzeko (Lima, Ricci, Nogueira, & Perracini, 2018).

- **Testa aurrera eramateko materiala:**
  - Besaurerik gabeko aulki bat
  - Besauredun aulki bat
  - Kronometroa
  - Zinta metrikoak (paretean itsasteko)
  - Zinta itsaskorra
  - Erregela
  - Kono bat
  - Step bat
- **Prozedura:** eskalaren probak banan-banan azaldu zitzaizkion parte-hartzaileari eta ebaluatzaileak adibidea egin zuen ulermena errazteko. Parte-hartzaileak proba egin

zuen proba bakoitzaren azalpena eta adibidea jaso ondoren denak jarraian egin beharrean probak ez ahazteko eta nekea minimizatzeko helburuarekin. Nahiz eta eskala gehienetan puntuazio bat edo beste emateko denbora erabili (objetiboa dena), kasu batzuetan alderdi subjektiboa ere bazegoen, non ebaluatzaileak izan behar zuten gainbegiraketa edota laguntza maila neurtu eta puntuatu behar zuena.

- **Eskalaren probak:**

- **Aulkitik altxatzea:** parte-hartzaileari ahal baldin bazuen eskuen laguntzarik gabe aulkitik altxatzeko eskatu zitzaion:

- 4 puntu: eskuen laguntzarik gabe aulkitik altxatzeko gaitasuna baldin bazuen
- 3 puntu: eskuen laguntzarekin aulkitik altxatzeko gaitasuna baldin bazuen
- 2 puntu: eskuen laguntzarekin baina hainbat saiaketa behar zituenean aulkitik altxatzeko
- Puntu 1: aulkitik altxatzeko eta oreka mantentzeko gutxieneko laguntza gehigarria behar baldin bazuen
- 0 puntu: aulkitik altxatzeko eta oreka mantentzeko neurritzko edota laguntza gehigarri handia behar baldin bazuen

- **Zutik mantentzea:** parte-hartzaileari denbora batez zutik mantentzeko eskatu zitzaion, inongo euskarririk gabe:

- 4 puntu: bi minutuz zutik mantentzeko gaitasuna baldin bazuen modu ziurrean
- 3 puntu: bi minutuz gainbegiraturik zutik mantentzeko gaitasuna baldin bazuen
- 2 puntu: 30 segundoz zutik mantentzeko gaitasuna baldin bazuen
- Puntu 1: 30 segundoz zutik mantentzeko hainbat saiakera behar zituenean
- 0 puntu: 30 segundoz zutik egoteko gaitasunik ez baldin bazuen

- \* Parte-hartzaileak proba honetan 3 edo 4 puntu eskuratzen bazituen, zuzenean 4. probara pasatzen zen, 3. proban ere 4 puntu eskuratuz

- **Eserita mantentzea:** parte-hartzaileari aulkian eserita mantentzeko eska zitzaion, besoak bularrean gurutzaturik, bizkarrak aulkiaren atzealdea ukitu gabe eta bi oinak lurrean zituelarik. Posizio hau bi minutuz mantentzeko eskatu zitzaion:

- 4 puntu: bi minutuz era ziurrean eserita egoteko gaitasuna baldin bazuen
- 3 puntu: bi minutuz gainbegiraturik eserita egoteko gaitasuna baldin bazuen
- 2 puntu: 30 segundoz eserita egoteko gaitasuna baldin bazuen

- Puntu 1: 10 segundoz eserita egoteko gaitasuna baldin bazuen
- 0 puntu: laguntzarik gabe 10 segundoz eserita egoteko gaitasunik ez baldin bazuen
- **Aulkian esertzea:** parte-hartzaileari aulkian esertzeko eskatu zitzaion:
  - 4 puntu: era ziurrean eta eskuen gutxieneko laguntzarekin aulkian esertzeko gaitasuna baldin bazuen
  - 3 puntu: aulkian esertzerakoan eskuetaz baliatzen baldin bazen jaitsiera kontrolatzeko
  - 2 puntu: aulkian esertzerakoan hanken atzekaldeaz baliatzen baldin bazen jaitsiera kontrolatzeko aulkiaren kontra
  - Puntu 1: jaitsiera kontrolatzeko gaitasunik ez baldin bazuen
  - 0 puntu: aulkian esertzeko pertsona baten laguntza behar baldin bazuen
- **Transferentziak:** parte-hartzaileari besaurre gabeko aulki batean esertzeko eskatu zitzaion, ondoan besauredun aulki bat zuelarik. Parte-hartzailea aulkitik altxa behar zen beste aulkian esertzeko, horretarako eskuak ahalik eta gutxien erabiliz. Behin beste aulkian eserita zegoelarik, berriro beste aulkian esertzeko eskatzen zitzaion:
  - 4 puntu: eskuen gutxieneko laguntzarekin transferentziak egiteko gaitasuna baldin bazuen
  - 3 puntu: era ziurrean baina eskuen laguntzarekin transferentziak egiteko gaitasuna baldin bazuen
  - 2 puntu: transferentziak egiteko gainbegiraketa eta jarraibideak behar zituenean
  - Puntu 1: transferentziak egiteko pertsona baten laguntza behar baldin bazuen
  - 0 puntu: transferentziak ziurrak izateko 2 pertsonen laguntza behar baldin bazuen
- **Begiak itxita zutik mantentzea:** parte-hartzaileari zutik eta begiak itxita 10 segundoz mantentzeko eskatu zitzaion:
  - 4 puntu: 10 segundoz era ziurrean zutik eta begiak itxita mantentzeko gaitasuna baldin bazuen
  - 3 puntu: 10 segundoz zutik eta begiak itxita mantentzeko gaitasuna baldin bazuen gainbegiratuta

- 2 puntu: hiru segundoz zutik eta begiak itxita mantentzeko gaitasuna baldin bazuen
- Puntu 1: hiru segundoz zutik eta begiak itxita mantentzeko gai ez baldin bazen baina oreka mantentzeko gaitasuna zuenean
- 0 puntu: erorketa ekiditeko laguntza behar baldin bazuen
- **Oinak elkartuta mantentzea:** parte-hartzaileari zutik zegoelarik bi oinak elkartzeko eta heldukerarik gabe posizioa eusteko eskatu zitzaion:
  - 4 puntu: bere kabuz bi oinak elkartzeko eta era ziurrean minutu batez mantentzeko gaitasuna baldin bazuen
  - 3 puntu: gainbegiraturik baina bere kabuz bi oinak elkartzeko eta era ziurrean minutu batez mantentzeko gaitasuna baldin bazuen
  - 2 puntu: bere kabuz bi oinak elkartzeko baina 30 segundo baino gutxiago mantentzeko gaitasuna baldin bazuen
  - Puntu 1: bi oinak elkartzeko laguntza behar duenean baina 15 segunduz posizioa mantentzeko gaitasuna baldin bazuen
  - 0 puntu: bi oinak elkartzeko laguntza behar duenean eta 15 segunduz posizioa mantentzeko gaitasunik ez baldin bazuen
- **Besoa aurreraka luzatzea:** parte-hartzaileari paretean dagoen erregelarekiko perpendikulariki zutik jartzeko eskatu zitzaion bi oinak maila berean zituelarik eta paretetik gertuen zuen besoa lurrarekiko parelo luzaturik zuela. Hasiera puntu bezela, behatz luzeena paretetik zinta metrikoaren hasieran kokatu behar zen (0 cm). Zaila gertatzen bazitzaion, hasierako zentimetro kopurua jasotzen zen (hasiera puntu). Ebaluatzaileak esaterakoan, parte-hartzaileak gorputza aurreraka flexionatu behar zuen ahalik eta urrutien oinak mugitu gabe, paretetik ukitu gabe eta oreka mantenduz. Lortzen zituen zentimetroak erregelaren laguntzaz irakurtzen ziren paretetik zinta metrikoan:
  - 4 puntu: > 25 cm aurreratzea lortzen baldin bazuen era erraz batean
  - 3 puntu: > 12 cm aurreratzea lortzen baldin bazuen era ziurrean
  - 2 puntu: > 5 cm aurreraka segurtasunez luzatzeko gai baldin bazen
  - Puntu 1: gainbegiraketa behar baldin bazuen proba egiteko
  - 0 puntu: proban zehar oreka galtzen baldin bazuen edota laguntza behar bazuen gorputz enborra flexionatzeko

- **Lurretik objektu bat jasotzea:** parte-hartzailea zutik zegoelarik lurtean zegoen objektu bat jasotzeko eskatu zitzaion:
  - 4 puntu: laguntzarik gabe era erraz eta ziurrean objektua jasotzeko gaitasuna baldin bazuen
  - 3 puntu: laguntzarik gabe baina gainbegiratuta objektua jasotzeko gaitasuna baldin bazuen
  - 2 puntu: objektua jasotzeko gaitasunik ez izan arren objektutik gertu (2-5 cm) gerturatzen denean eta laguntzarik gabe oreka mantentzeko gaitasuna baldin bazuen
  - Puntu 1: objektua jasotzeko gaitasunik ez duenean eta saiakeran zehar gainbegiraketa behar baldin bazuen
  - 0 puntu: objektua hartzeko saiakeran zehar oreka ez galtzeko laguntza behar baldin bazuen
- **Atzera begiratzea:** ebaluatzailea parte-hartzailearen atzean kokatzen zen, biak zutikako posizioan. Parte-hartzaileari ebaluatzailea begiratzeko eskatu zitzaion gorputz-enborra albo baterantz biratuz baina oinak mugitu gabe.
  - 4 puntu: gorputza zein lepoa bi aldeetara ondo biratzeko gaitasuna baldin bazuen
  - 3 puntu: alde baterantz beste alderantz gutxiago biratzen baldin bazen
  - 2 puntu: alde bakarrera biratzen zuenean oreka mantenduz
  - Puntu 1: gorputza biratzen saiatzeko gainbegiraketa behar baldin bazuen
  - 0 puntu: oreka galdu eta erorketa sahiesteko laguntza behar baldin bazuen
- **Bira oso bat (360°) ematea:** parte-hartzaileari buelta oso bat emateko eskatu zitzaion, lehendabizi alde batera eta ondoren beste aldera:
  - 4 puntu: era ziurrean bi aldeetara bira osoa emateko gai baldin bazen 4 segundo edo gutxiagoan
  - 3 puntu: era ziurrean alde batera bira osoa emateko gai baldin bazen 4 segundo edo gutxiagoan
  - 2 puntu: era ziurrean bi aldeetara bira osoa emateko gai baldin bazen baina poliki
  - Puntu 1: bira ematen saiatzeko gainbegiraketa behar baldin bazuen
  - 0 puntu: bira emateko laguntza behar baldin bazuen
- **Oinak step edo eskaloi baten gainean jarri:** parte-hartzaileari eskaloi edo step-aren gainean oinak txandaka jartzeko eskatu zitzaion:



- 4 puntu: era ziurrean eta laguntzarik gabe 8 errepikapen egiteko gaitasuna baldin bazuen 20 segundu baino gutxiagoan
- 3 puntu: laguntzarik gabe 8 errepikapen egiteko gaitasuna duen baldin bazuen ean 20 segundu baino gehiagoan
- 2 puntu: laguntzarik gabe edo gainbegiratuta 4 errepikapen egiteko gai baldin bazen
- Puntu 1: gutxieneko laguntza behar baldin bazuen > 2 errepikapen egiteko
- 0 puntu: saiakera egiteko laguntza behar baldin bazuen edo saiatzeko gai ez baldin bazen
- **Tandem posizioa:** parte-hartzaileari oin bat bestearen aurrean jartzeko eskatu zitzaion:
  - 4 puntu: laguntzarik gabe oin bat bestearen aurrean jarri eta 30 segundoz posizioa mantentzeko gaitasuna baldin bazuen
  - 3 puntu: laguntzarik gabe pausu bat eman (aurreraturiko oinaren orpoa atzeko oinaren punta baino aurreratuago dagoelarik) eta 30 segundoz mantentzeko gai baldin bazen
  - 2 puntu: laguntzarik gabe pauso txiki bat eman eta 30 segundoz mantentzeko gaitasuna baldin bazuen
  - Puntu 1: pauso txiki bat emateko laguntza behar duenan baina posizioa 15 segundoz mantentzeko gaitasuna baldin bazuen
  - 0 puntu: pausoa ematerakoan edo posizioa mantentzen saiatzerakoan oreka galtzen baldin bazuen
- **Hanka bakarrean mantentzea:** parte-hartzaileari hanka bakarrean jarri eta posizioa mantentzeko eskatu zitzaion:
  - 4 puntu: laguntzarik gabe hanka bakarrean jarri eta > 10 segundoz mantentzeko gaitasuna baldin bazuen
  - 3 puntu: laguntzarik gabe hanka bakarrean jarri eta 5-10 segundoz mantentzeko gaitasuna baldin bazuen
  - 2 puntu: laguntzarik gabe hanka bakarrean jarri eta  $\geq 3$  segundoz mantentzeko gaitasuna baldin bazuen
  - Puntu 1: laguntzarik gabe hanka bakarrean jarri, baino 3 segundoz mantentzeko gaitasuna baldin bazuen

- 0 puntu: saiakera egiteko laguntza behar duenean edo saiatzeko gai ez baldin bazen

- **Aztertutako aldagaiak:** puntuazio totala

#### 3.3.4.5 Esku-heltze indarra (handgrip)

Eskuko eta besaurreko indarra osasunarekin lotura duela frogatu da, hala nola morbillitatearekin, desgaitasunarekin, gaixotasun kardiobaskularrekin eta baita heriotzarekin lotu izan da (Leong eta lank., 2015; Sayer eta Kirkwood, 2015). Alabaina, zenbait autoreek diote eskuko eta besaurreko indarra handitzearen eragina osasunarekin erlazionaturiko parametroetan argitzen duen ikerketaren beharra dago (Leong eta lank., 2015).

- **Testa aurrera eramateko materiala:**
  - o Jamar Sammons Preston dinamometroa (Jamar, USA)
  - o Besaurerik gabeko aulkia



11. Irudia. Besaurreko indarra neurzteko dinamometroa

- **Prozedura:** parte-hartzaileari aulkian esertzeko eskatu zitzaion dinamometroa esku batean eta ukondoa 90º-tara flexionatuta zuelarik. Dinamometroaren neurria parte-hartzailearen eskuaren neurriari egokitu zitzaion behatz guztiekin indarra egin zezakeela ziurtatuz. duela, dinamometroa esku batekin eutsi eta ahalik eta gehien estutzeko esango zaio parte-hartzaileari. Ebaluatzaileak seinalea ematerakoan, parte-hartzaileak dinamometroa ahalik eta gehien estutu behar zuen 3-5 segunduz. Proba bi aldiz egin zen esku bakoitzarekin, bakoitzean eskuratutako kilogramo kopurua apuntatuz. Esku bakoitzeko saiakera hoberena aukeratu zen (kilogramo kopururik handiena). Geroz eta kilogramo gehiago, orduan eta eskuko zein besaurreko indar handiagoa adierazten du test honek.
- **Aztertutako aldagaiak:**
  - o Eskuko eta besaurreko indarra

### 3.3.5 Dual-task ahalmena

Dual-task ebaluazioa bi ataza aldi berean egitean datza. Bi ataza horiek arreta lortzeko lehiatzen direnean, ataza bat edo bien gauzatzea zailtzen da (Plummer, Zukowski & Giuliani, 2016). Dual-task errendimenduak behera egiten du adinarekin, batez ere narriadura kognitiboa agertzen denean. Hori dela eta, funtzio fisikoaren eta kognitiboaren arteko elkarreragina ebaluatzeko tresna potentzial gisa erabili da (Montero-Odasso eta lank., 2017).

Dual-task probak bi ataza fisiko erabiliz gauzatu ziren: martxa eta TUG testa. Balorazioetako lehenengo egunean parte-hartzaileek dual-task martxa egin zuten eta bigarren egunean dual-task TUG testa. Erabilitako zeregin kognitiboak hiru izan ziren: animaliak edo frutak eta barazkiak izendatu, banakako atzerako kontua (50-100 bitarteko zenbaki batetik) eta *go-no-go* proba. Zeregin kognitibo bakoitzeko 2 saiakera egin ziren, zorizko ordenean ikasketa prozesua eta nekea ekiditzeko.

Proba guztiak azelerometro tri-axial bat (G-walk, BTS Bioengineering, Italy) erabiliz gauzatu ziren. G-walk martxa aztertzeko sistema bat da, subjektuaren masa zentroa hari gabeko azelerometro tri-axial baten bidez neurtzen duena (Park & Woo, 2015). Probak egiteko denboraren datuak hari gabe transferitu ziren Bluetooth bidez eta BTS G-studio software-aren (G-Studio® 2.8.16.0 bertsioa, BTS Bioengineering, Italy) bidez analizatu ziren denboraren parametroa eskuratzeko.

#### 3.3.5.1 Dual-task martxa

Parte-hartzaileari bederatzi metrotan zehar ohiko abiaduran ibiltzea eskatu zitzaion zeregin kognitibo bat burutzen zuen bitartean. Proba burutzeko, parte-hartzaileari hari gabeko azelerometro triaxiala subjektuaren gerialdeko 5. ornora finkatu, eta belkroarekin estutu zitzaion. Lurrean zero eta bederatzi metro markatu ziren zinta itsaskorrarekin. Parte-hartzaileari zero metroko zintatik ahalik eta gertuen kokatzeko eskatu zitzaion eta ebaluatzaileak seinalea ematerakoan, parte-hartzailea ibiltzen hasi behar zen. Kronometroa zein G-walk-a zero-ko marra zeharkatzerakoan hasi eta bederatzi metrokoa zeharkatzerakoan eteten ziren. Parte-hartzailea gelditu ezker, oinez jarraitzeko eskatu zitzaion zaio nahiz eta hitzik esateko gai ez izan. Proba egiteko bi ebaluatzaile beharrezkoak izan ziren; bata parte-hartzailearengandik gertu ibiltzen zena segurtasunagatik eta bestea denbora kronometratzen zuena eta azelerometroa (G-walk) martxan jarri eta geldiarazten zituena.

- **Testa aurrera eramateko materiala:**
  - G-walk sistema (G-Sensor® eta G-Studio®, BTS Bioengineering, Italy)
  - Zinta metrikoa
  - Zinta itsaskorra
- **Animaliak izendatzea (oroimen semantikoa)**
  - **Prozedura:** parte-hartzaileari ohiko abiaduran ibiltzea eskatu zitzaion animaliak izendatzen dituen bitartean.
- **Atzerako kontua (arreta)**
  - **Prozedura:** parte-hartzaileei ohiko abiaduran ibiltzea eskatu zitzaion 50-100 bitarteko zenbaki batetik atzeraka kontaktzen duen bitartean.
- **Go-no-go (kontrol inhibitzailea)**
  - **Prozedura:** parte-hartzaileari ohiko abiaduran ibiltzea eskatu zitzaion. Bitartean, ebaluatzailean 1 zenbakia esaten zuen bakoitzean parte-hartzaileak 2 erantzun behar zuen eta alderantziz.
- **Aztertutako aldagaiak:** probak egiteko abiadura. Hiru probak bi aldiz gauzatu ziren eta bakoitzaren denbora (s) azkarrena aukeratu zen abiadura kalkulatzeko hurrengo formularen arabera:

$$\text{Abiadura} = \text{distantzia (9m)} / \text{proba egiteko denbora (s)}$$

### 3.3.5.2 Dual-task Timed Up & Go

Parte-hartzaileari aurretik deskribatutako TUG proba gauzatzeko eskatu zitzaion, hau da, aulkitik eskuak erabili gabe altxatu, 3 m-tara zegoen konoari buelta ematea eta berriro aulkian esertzea bere abiadura ohikoan. Proba hau aldibereko 3 zeregin kognitibo (dual-task martxan erabilitakoak) gauzatzea eskatu zitzaion. Aldaketa bakarra oroimen semantikoa izan zen, non animaliak izendatu beharrean, frutak eta barazkiak izendatzea eskatu zitzaion ikasketa prozesua ekiditeko.

Proba egiteko bi ebaluatzaile behar izan ziren; bata parte-hartzailearengandik gertu ibiltzen zena segurtasunagatik eta beste bat azelerometroa (G-walk) martxan jarri eta geldiarazten zuena. G-walk-a parte-hartzaileak enborra aurreraka botatzen hasten zenean hasi eta bizkarra aulkiaren bizkarraldean bermatzen zuenean gelditzen zen. Parte-

hartzailea gelditu ezker, oinez jarraitzeko eskatzen zitzaion nahiz eta hitzik esateko gai ez izan.

- **Testa aurrera eramateko materiala:**
  - Besaurre gabeko aulkia
  - G-walk sistema
  - Zinta metrikoa
  - Zinta itsaskorra
- **Frutak eta barazkiak izendatzea (memoria semantikoa)**
  - **Prozedura:** parte-hartzaileari ohiko abiaduran ibiltzea eskatzen zaio frutak eta barazkiak izendatzen dituen bitartean.
- **Atzerako kontua (arreta)**
  - **Prozedura:** parte-hartzaileei ohiko abiaduran ibiltzea eskatu zitzaion 50-100 bitarteko zenbaki batetik atzeraka kontatzen duen bitartean.
- **Go-no-go (kontrol inhibitzailea)**
  - **Prozedura:** parte-hartzaileari ohiko abiaduran ibiltzea eskatu zitzaion. Bitartean, ebaluatzailean 1 zenbakia esaten zuen bakoitzean parte-hartzaileak 2 erantzun behar zuen eta alderantziz.
  - **Aztertutako aldagaiak:** probak egiteko denborak (s) eta kostuak. Hiru probak bi aldiz gauzatu ziren eta bakoitzaren denbora (s) azkarrena aukeratu zen. Kostua hurrengo formularen arabera kalkulatu zen:

$$\text{Dual-task kostu fisikoa} = ((\text{dual task} - \text{Single task}) / \text{single-task}) \times 100$$

### 3.3.6 Jarduera Fisikoa

Jarduera fisikoak osasunean dituen onurak direla eta, hau neurtzea ezinbestekoa da ikerketarako eta baita ere osasun aholku indibidualizatuak eman ahal izateko (Troiano eta lank., 2008; Bernard eta lank., 2018). Jarduera fisikoa era objetiboan neurtzeko era bat azelerometroen bitartez da. Azelerometroek jarduera fisikoaren kopuru totala, intentsitatea eta maiztasuna bezelako ezaugarriak jasotzen ditu. Nahiz eta kokapena eskumuturra zein aldaka izan daitekeen, zehaztasun handiena aldakan jartzerakoan lortzen dela ikusi da (Miguelles eta lank., 2017). Adineko pertsonetan ere, geroz eta ikerketa

gehiago argitaratzen ari dira azelerometroak erabili dituztenak jarduera fisikoa neurtzeko (Lee & Shiroma, 2014; Lee eta lank., 2018). Hala eta guztiz ere, adineko pertsonen populazioaren barnean, oso ikerketa gutxi dira azelerometroekin jarduera fisikoa aztertu dituztenak HAE-tan (Arrieta eta lank., 2018b; Lobo, Santos, Carvalho & Mota, 2008).

- **Testa aurrera eramateko materiala:**

- Actigraph azelerometroak (Actigraph wGT3XBT; Actigraph LLC, Pensacola, FL, USA)
- Actigraph analisi programa (Actigraph LLC 6.11.9 bertsioa, Pensacola, FL, USA)

- **Prozedura:** Jarduera fisikoaren neurketa era objektiboan neurtu zen azelerometroen bitartez. Parte-hartzaile bakoitzak azelerometro bat eraman zuen gerriko baten bitartez eskuineko aldan zazpi egunetan zehar interbentzio aurretik eta interbentzioa bukatzerakoan (interbentzio hasieratik 3 hilabetetara). Azelerometroak proba fisiko eta kognitiboak baino astebete lehenago jarrita eraman zituzten. Gerrikoa goizetik (dutxaren ondoren) jarri eta oheratzerate eraman behar zuten. Parte-hartzaileek gerrikoa jartzen zutela bermatzeko, zentro bakoitzeko erizain zein auxiliarrei informazio orri bat zabaldu zitzaion (6. eranskina), azelerometroak nola, noiz eta noiz arte jarri behar zuten azaltzen zuena. Horretaz gain, auxiliar zein erizain koordinatzaileei ahoz ere azaldu zitzaion, azelerometroa nola jarri eta kentzen zen erakutsiz eta hau ondo kokatzearen garrantzia azpimarratuz (zuzenean dutxa ondoren jartzea, pertsona bakoitzari ondo ajustatu behar zaiola eta gauean lo egiteko kentzearen garrantzia, besteak beste). Lehenengo egunean ikerketa taldeak parte-hartzaile bakoitzarentzako gerrikoaren neurria zehaztu zuen, gehiegizko mugimenduak zein deserotasunak ekiditeko. Behin zazpi egun pasatzen zirenean, datuak deskargatu eta Actigraph software-arekin analizatzen ziren. Parte-hartzaile batzuk azelerometroa lo egiteko kendu ez zutela ikusita, analisi programan ordutegia murriztea erabaki zen. Honela, parte-hartzaile guztietan goizeko zazpiketatik hasita gaueko hamarrak arteko datuak aztertu ziren soilik. Analisia egin ahal izateko, azelerometroa gutxieneko 10 ordu izan behar zuten jarrita asteko 3 egunetan (Hart, Swartz, Cashin eta Strath, 2011). Gutxieneko baldintza hauek betetzen ez zutenen datuak ez ziren aztertu. Jarduera fisikoaren intentsitatea zehazteko Freedson, Melanson eta Sirard-ek (1998) proposatutako ebaki puntuak erabili ziren, hirugarren dineko egoitzetan aurerra eramandako ikerketek erabili izan dituztenak (Lobo eta lank., 2008; Arrieta eta lank., 2018b).

- **Aztertutako aldagaiak:**

- Egun guztien batazbesteko pauso kopurua (pauso totalak/baliozko egun kopurua).
- Eguneko jarduera fisikoaren intentsitatea Freedson eta lankideen (1998) ebaki mozketen arabera aztertu zen: arina (100-1951 kontu/min); ertaina (1952-5724 kontu/min); kementsua (5725-9498 kontu/min); eta oso kementsua (>9499 kontu/min).

### 3.3.7 Proba Neuropsikologikoak

Adinarekin, funtzio kognitiboak zein afektibitate egoerak okerrera egiteko joera erakutsi ohi dute (Robertson eta lank., 2013). Hala ere, joera hau hainbat faktoreen menpe egon daiteke, besteak beste pertsonaren gaitasun kognitiboa, bizi kalitatea, bakardadea, depresioaren menpe (Cohen-Mansfield, Shmotkin eta Goldberg, 2009; Zhao eta lank., 2012; Bilgili eta Arpacı, 2014; Blazer eta lank., 2015). Hortaz, okerkuntza hori ez da pertsona guztietan berdin ematen (Blazer eta lank., 2015).

Azken urteetan ariketa fisikoak gaitasun kognitibo orokorrean zein afektibitate egoeran eragin positiboa duela frogatzen duten ikerketak gauzatu dira komunitatean bizi diren adineko pertsonetan (Angevaren, Aufdemkampe, Verhaar, Aleman eta Vanhees, 2008; Figueira eta lank., 2012; Falck, Davis eta Liu-Ambrose, 2017; Aguiñaga eta lank., 2018; Chekroud eta lank., 2018). Aldiz, hirugarren adineko egoitzetan bizi diren pertsonetan burutu diren ikerketak gutxiago izan dira (Lok eta lank., 2017; Pereira eta lank., 2018).

Proba neuropsikologiko guztiak psikologian graduatutako profesionalek burutu zituzten.

#### 3.3.7.1. Montreal cognitive assessment

Montreal cognitive assessment testa (Coen, Robertson, Kenny & King-Kallimanis, 2015) funtzio kognitiboa aztertzen duen eta narriadura kognitibo arina eta Alzheimer gaixotasunaren hasiera antzemateko sortu zen (Doerflinger, 2012). Testa balidatutako gaztelerako bertsioan (Gallego eta lank., 2009) egin zen.

- **Prozedura:** parte-hartzailearen arabera testa pasatzeko denbora desberdina den arren, batazbesteko denbora 10-15 minutukoa izan zen. Narriadura kognitiborik gabeko pertsonetan testa betetzeko denbora gutxiago behar zen eta denbora gehiago ikusmen/entzumen eta artrosi arazoak eta narriadura kognitiboa zuten pertsonekin (7. eranskina).

- **Aztertutako aldagaiak**
  - **Funtzio bisuoespazial/exekutiboa**
    - **Zenbakiak eta letrak ordenean tartekatu**
      - **Prozedura:** parte-hartzaileak zenbakiak eta letrak tartekatu beharko zituen bai zenbakien ordena eta letren orden alfabetikoa jarraituz.
      - **Puntuazioa:** parte-hartzaileak puntu bat jaso zuen baldin eta zenbaki eta letra guztiak ondo lotzen bazituen: 1-A-2-B-3-C-4...
    - **Kuboa kopiatu**
      - **Prozedura:** parte-hartzaileari hiru dimentsiotako kubo bat kopiatzeko eskatu zitzaion.
      - **Puntuazioa:** parte-hartzaileak puntu bat jaso zuen kuboa ondo kopiatu baldin bazuen hurrengo irizpideen arabera: kuboa hiru dimentsioetakoa izatea, marra guztiak edukitzea eta marra gehigarriak ez egotea, marra paraleloak izatea.
    - **Erlojua**
      - **Prozedura:** parte-hartzaileari erloju bat marrazteko eskatu zitzaion. Erlojuan zenbaki guztiak azaltzeko eta orratzek 11ak eta 10-etan jartzeko eskatu zitzaion.
      - **Puntuazioa:** parte-hartzaileak puntu bat jaso zuen betetzen dituen hurrengo irizpide bakoitzeko: erlojuaren ingurua borobila zenean, gutxieneko desitxuraketarekin (puntu 1); erlojuan zenbaki guztiak agertzen zirenean ordenean eta gutxi gora behera dagokien tokian kokaturik (puntu 1); bi orratzak erlojuaren erdialdetik hasi eta ordu egokia azaltzen zutenean. Minutuak markatzen dituen orratza orduena baino luzeagoa izan behar zuen. Hortaz, gehieneko puntuazioa 3 puntu zen.
  - **Animaliak identifikatu**
    - **Prozedura:** parte-hartzaileari hiru animalien irudiak erakutsi zitzaizkion eta ozen izendatzeko eskatuko zitzaion.
    - **Puntuazioa:** parte-hartzaileak puntu bat jaso zuen ondo izendatutako animali bakoitzeko. Hortaz, gehieneko puntuazioa 3 puntu zen.



- **Oroimena**
  - **Prozedura:** parte-hartzaileari 5 hitz esan zitzaizkion ozenean eta segundu bateko tartearekin. Ondoren, parte-hartzaileari gogoratzen zituen hitzak esatea eskatu zitzaion. Prozedura hau bi aldiz errepikatuko zen eta parte hartzaileari hitzak gogoratzeko eskatu zitzaion, testa bukatzean berriro ere esateko eskatuko zitzaizkiola adieraziz. Hitzen ordenak ez zuela garrantzirik azpimarratu zitzaion.
  - **Puntuazioa:** testaren arabera bi saiakera hauetan parte-hartzailea ez zen ebaluatzen.
- **Arreta**
  - **Zenbakiak ordenean errepikatzea**
    - **Prozedura:** parte-hartzaileari 5 zenbaki esan zitzaizkion ozenean eta segundu bateko tartearekin. Ondoren, parte-hartzaileari zenbakiak orden berean esateko eskatu zitzaion.
    - **Puntuazioa:** parte-hartzaileak puntu bat jaso zuen zenbaki guztiak dagokien ordenean esan bazituen.
  - **Zenbakiak atzeraka**
    - **Prozedura:** parte-hartzaileari 3 zenbaki esan zitzaizkion ozenean eta segundu bateko tartearekin. Ondoren, parte-hartzaileari hiru zenbakiak atzeraka errepikatzeko eskatuko zitzaion azken zenbakitik hasita lehenengora arte.
    - **Puntuazioa:** parte-hartzaileak puntu bat jaso zuen zenbaki guztiak dagokien ordenean esan bazituen.
  - **A letra**
    - **Prozedura:** ebaluatzaileak hizki zerrenda bat irakurri zuen ozenean eta segundu bateko tartearekin. Parte-hartzaileak eskua mahai gainean zuelarik, “A” letra entzuten zuen bakoitzean mahai kolpe txiki bat emateko eskatu zitzaion. Ebaluatzaileak beste edozein hizki esatean parte-hartzaileak ez zuen kolperikeman behar.
    - **Puntuazioa:** parte-hartzaileak puntu bat jaso zuen akats bat edota akatsik egin ez bazuen. Akats kontsideratu zen, baldin eta parte-hartzaileak “A” hizkia

entzutean ez bazuen kolperik ematen edo beste edozein hizki entzuterakoan kolpea ematen bazuen, nahiz eta momentuan akatsa zuzendu egin zuen.

– **Kenketak**

- **Prozedura:** parte-hartzaileari 100 zenbakitik hasita zazpi kentzen joateko eskatu zitzaion.
- **Puntuazioa:** parte-hartzaileak ez zuen punturik jaso kenketa guztiak gaizki egin bazituen edo kenketak egiteko gai ez zenean; puntu bat jaso zuen kenketa bat ondo egin bazuen; bi puntu bi edo hiru kenketa ondo egin bazituen; eta hiru puntu jaso zituen lau edo bost kenketa ondo egin bazituen. Hortaz, proba honetan gehieneko puntuazioa 3 zen. Kenketa bakoitza banaka aztertu zen, non nahiz eta akats egin zenbaki batean, ondoren zenbaki horretatik kenketa ondo egiten bazuen puntu bat eman zitzaion.

○ **Hizkuntza**

– **Esaldiak errepikatu:**

- **Prozedura:** parte-hartzaileari esaldi bat ozen irakurri zitzaion. Ondoren, parte-hartzaileari esaldia hitzez hitz errepikatzeko eskatu zitzaion. Probak bi esaldi barnehartzen zituen.
- **Puntuazioa:** parte-hartzaileak puntu bat jaso zuen hitzez hitz esandako esaldi bakoitzeko. Hortaz, gehieneko puntuazioa 2 zen.

– **Hitz-jarioa**

- **Prozedura:** parte-hartzaileari 60 segundotan zehar “p” hizkiz hasten diren ahalik eta hitz gehien esateko eskatu zitzaion. Proba hasi aurretik izen propioak, zenbakiak eta erro bera duten hitzak (adibidez proba, probatu) ez zirela kontutan hartzen adierazi zitzaion.
- **Puntuazioa:** parte-hartzaileak puntu bat jaso zuen 11 hitz edo gehiago esan bazituen.

○ **Abstrakzioa**

- **Prozedura:** parte-hartzaileari adibide bezela sagarrak eta laranjak osatzen duten kategoria izendatzeko eskatu zitzaion (frutak). Parte-hartzaileak asmatzen bazuen probarekin hasi egiten zen eta ez bazuen asmatzen erantzuna

ematen zitzaion. Jarraian, 1) trenak eta bizikletak, eta 2) erlojuak eta erregelak osatzen duten kategoria izendatzeko eskatu zitzaion inongo laguntzarik eman gabe.

- **Puntuazioa:** parte-hartzaileak ondo izendatutako kategoria bakoitzeko puntu bat jaso zuen. Trena eta bizikletaren kasuan erantzun zuzena “garraibideak” eta erloju eta erregelarenean “neurtzeko gailuak” izanik. Hortaz, gehieneko puntuazioa 2 zen.
- **Iraupen luzeko oroimena**
  - **Prozedura:** parte-hartzaileari “oroimena” probatik gogorazten zituen hitzak ozen esateko eskatu zitzaion.
  - **Puntuazioa:** parte-hartzaileak gogoratzen zuen hitz bakoitzeko puntu bat jaso zuen. Hortaz, gehieneko puntuazioa 5 zen.
- **Orientazioa**
  - **Prozedura:** parte-hartzaileari data (asteguna, eguna, hilabetea eta urtea) esatea eskatu zitzaion. Ondoren, kokapen zehatza eta hiria galdetu zitzaizkion.
  - **Puntuazioa:** parte-hartzaileak puntu bat jaso zuen erantzun zuzen bakoitzeko Hortaz, gehieneko puntuazioa 6 zen.
- **Puntuazio orokorra:** gehieneko puntuazioa 30 zen. Hala ere, 12 urte edo gutxiagoko ikasketak zituzten parte-hartzaileek puntu gehigarri bat jaso zuten. Geroz eta puntuazio altuagoa lortu, orduan eta gaitasun kognitibo hobea adierazten du testak.

### 3.3.7.2. Hitzeko oroimena

Hitzeko oroimen testaren bitartez oroitzeko gaitasunaren galerak antzeman daitezke (Bezdicsek eta lank., 2014). Testa zehazki hitzeko oroimena eta hitz metatuak oroitzeko gaitasuna neurtzeko erabili ohi da (Ponton, 2001).

- **Prozedura:** parte-hartzaileari 15 hitzeko zerrenda bat bost aldiz irakurri zitzaion (A zerrenda) hitz bakoitzaren artean segundu bateko tartearekin. Irakurketa bakoitzaren ondoren parte-hartzaileak gogoratzen zituen hitz guztiak esan behar zituen ordena kontutan hartu gabe. Azkeneko errepikapena bukatzerakoan, ebaluatzaileak beste 15 hitzeko zerrenda bat irakurri zuen (B zerrenda) eta parte-hartzaileak zerrenda berri

horretatik gogoratzen zituen hitzak esan behar zituen. Jarraian, berriro A zerrendatik gogoratzen zituen hitzak esateko eskatu zitzaion. Bukatzeko, 20 minutu pasa ondoren berriz A zerrendatik gogoratzen zituen hitzak esateko eskatu zitzaion. Testa burutzeko 15-20 minutu behar ziren.

- **Aztertutako aldagaiak:** testak hainbat aldagai ematen dituen arren, ikerketa honetarako A zerrendako 5 saiakeretan esandako hitzen gehiketa erabili zen, non geroz eta puntuazio altuagoak oroimen hobetaz adierazten duen.

### 3.3.7.3. Trazu testa

Trazu testa informazioa prozesatzeko abiadura neurtzeko tresna neuropsikologiko erabilienetarikoa da (Reitan eta Wolfson, 1985; Olabarrieta-Landa eta lank., 2016). Zehazki, ikusmen abiadura eta abiadura eta kontrol motorra aztertzen ditu. Trazu testa A eta B atalaz osaturik egon arren, ikerketa honetan A atala erabili zen parte-hartzaile gehieneko B atala egiteko gaitasun falta baizuten.

- **Prozedura:** parte-hartzaileari marra baten bidez eta ordena jarraituz zenbaki guztiak lotzeko eskatu zitzaion (8. eranskina). Proba ahalik eta azkarren egiteko adierazi zitzaion.
- **Puntuazioa:** zenbaki guztiak ordenean lotzeko behar izan zuen denbora jaso zen (segunduetan). Geroz eta denbora gutxiago orduan eta informazioa prozesatzeko ahalmen hobetaz adierazten du testak.

### 3.3.7.4. Wechsler-en helduentzako adimen eskalaren laugarren edizioa

Wechsler-en inteligentzia test multzoa, pertsona helduen gaitasun intelektualak neurtzeko tresna erabilienetarikoa da (Wechsler, 2010; Amador, 2013; Olabarrieta-Landa eta lank., 2016). Ikerketa honetan laugarren edizioa erabili zen (momentuan eguneratuena). Test multzoa 15 probaz osaturik egon arren, 2 izan ziren ikerketa honetan aurrera eramandakoak: zenbakien kodea eta ikurren bilaketa, prozesatzeko abiadura neurtzen dutenak (Wechsler, 2010).

#### 3.3.7.1.1 Zenbakien kodea

- **Prozedura:** test-orriaren goiko aldean zenbaki batzuk agertzen ziren batetik bederatzira non zenbaki bakoitzari ikur bat zegokion. Parte-hartzaileak orriaren behealdean, ausaz aukeratutako zenbaki zerrenda bat eta zenbaki bakoitzaren azpian

lauki hutsak zituen. Proba hasi baino lehen ebaluzatzaileak 3 eredu egiten zituen eta ondoren parte-hartzaileak beste 3 egin behar zitue ebaluzatzailearen laguntzaz. Gida hori jarraituz, parte-hartzaileak orrian agertzen ziren zenbakien azpian ikurrak marraztu behar zituen, 2 minututan zehar ahalik eta gehien betez.

- **Puntuazioa:** bi minututan ondo egindako ikur kopurua zenbatu zen. Geroz eta puntuazio hobea orduan eta prozesatzeko abiadura hobea adierazten du testak.

#### 3.3.7.1.2 Ikurren bilaketa

- **Prozedura:** testan ikurrekin betetako ilarak agertzen ziren. Ilara bakoitzaren ezkerreko aldean bi ikur zeuden, grisez nabarmenduta. Bi ikur horietaz aparte, lerro berean beste bost ikur eta "NO" hitza agertzen ziren. Grisez nabarmendutako ikurren bat ilara berean errepikatuz gero, parte-hartzaileak marra batekin adierazi behar zuen. Ez bazen ikurrik errepikatzen, "NO" hitza borobilduko behar zuen. Proba hasi baino lehen ebaluzatzaileak 3 ilara egin zituen eredu gisa eta ondoren parte-hartzaileak beste 3 bete behar zituen ebaluzatzailearen laguntzaz. Jarraian, parte-hartzaileari 2 minutuz ahalik eta ilara gehien betetzeko eskatu zitzaion.
- **Puntuazioa:** bi minututan ondo egindako ilara kopurua zenbatu zen. Ondo egindako ilara bakoitzak puntu bat gehitzen zuen eta gaizki egindako bakoitzak puntu bat kentzen zuen. Geroz eta puntuazio hobea orduan eta prozesatzeko abiadura hobea adierazten du testak.

#### 3.3.7.5. Hitz-jarioa

Hitz-jarioaz hitz egiterakoan isilune luzeak ekiditeko hitzak bilatzeko gaitasunaz ari gara (Butman, Allegri, Harris & Drake, 2000). Gaixotasun batzuen presentzia hitz-jarioa murriztu dezakete, besteak beste, depresioa, eskizofrenia eta Alzheimer (Norris, Blankenship-Reuter, Snow-Turek eta Finch, 1995; Gourovitch, Goldberg eta Weinberger, 1996; Pachana, Boone, Miller, Cummings eta Berman, 1996). Hitz-jario testa azkarra eta errez aurrera eramaten den testa da. Hortaz, ebaluazio neuropsikologikoetan maiz erabiltzen da (Parkin, Belinchón eta Vargas, 1999). Test hauen artean, ikerketa honetarako "p" hizkiz hasten diren hitzak eta animaliak izendatze aukeratu zirren hitz-jarioa neurtzeko (Serrani, 2013).

#### 3.3.7.1.3 “p” hizkiz hasten diren hitzak

- **Prozedura:** parte-hartzaileari minutu batez ahalik eta “p” hizkiz hasten diren hitz gehien izendatzeko eskatuko zaio.
- **Puntuazioa:** hitz zuzen kopuru totala jasoko da, non kopuru altuago batek emaitza hobea adierazten duen

#### 3.3.7.1.4 Animaliak izendatzea

- **Prozedura:** parte-hartzaileari minutu batez ahalik eta animalia gehien izendatzeko eskatuko zaio.
- **Puntuazioa:** hitz zuzen kopuru totala jasoko da, non kopuru altuago batek emaitza hobea adierazten duen

### 3.3.8 Afektibitate egoera

#### 3.3.8.1. Goldberg-en antsietate eta depresio testa

Testa antsietate eta depresio egoerak antzemateko asmoz diseinatu zen (Goldberg, Bridges, Duncan-Jones eta Grayson, 1988).

- **Prozedura:** parte-hartzaileari antsietate eta depresioaren inguruko testeko galderak egingo zaizkio. Testa pasatzeko 3-5minutu behar ohi dira.
- **Puntuazioa:** antsietate eta depresioko puntuazioak bananduta aztertu ziren. Galdeketako baiezko bakoitzak puntu bat gehituko du. Puntuazio geroz eta altuagoa, depresio edota antsietatea izateko arrisku altuagoa adierazten du.

#### 3.3.8.2. De Jong-Gierveld-en bakardade testa

Testa bakardade antzemateko asmoz diseinatu zen (De Jong-Gierveld & Kamphuls, 1985)

- **Prozedura:** aurreko testen antzera, parte-hartzaileari testeko galderak egin zitzaizkion.
- **Puntuazioa:** parte-hartzaileak 1, 4, 7, 8 eta 11 galderei ezezkoa edo “gutxi gorabehera” erantzuten bazuen puntu bat jaso zuen erantzun bakoitzeko. Aldiz, beste galdera guztietan puntu bat jaso zuen erantzuna baiezkoa zenean. Ondoren, galdera guztien puntuazioak gehitu ziren, non testaren gutxieneko puntuazioa zero eta gehienezkoa 11

ziren. Geroz eta puntuazio altuagoak bakardade sentimendu altuagoa adierazten du test honek.

### **3.3.9 Bizi kalitatea: Quality of Life Alzheimer's Disease bizi-kalitate testa**

Test hau narriadura kognitiboa duten pertsonen bizi kalitatea ebaluatzeko diseinatu zen (Gómez-Gallego, Gómez-Amor eta Gómez-García, 2012)

- **Prozedura:** aurreko testen antzera, parte-hartzaileari testeko galderak egin zitzaizkion (9. eranskina).
- **Puntuazioa:** parte-hartzaileak galdetegiko erantzun bakoitzari "txarra" erantzuten zion bakoitzean puntu bat jaso zuen, 2 puntu "normala" erantzuten zuenean, 3 puntu "ona" erantzuten zuenean eta 4 puntu "bikaina" erantzuten zuenean. Ondoren, testaren erantzun guztien puntuazioak gehitu ziren, non gutxieneko puntuazioa 13 eta gehienezkoa 52 zen. Geroz eta puntuazio altuagoa, bizi kalitate pertzepzio altuagoa adierazten du test honek.

### **3.3.10 Hauskortasuna**

Literaturan hauskortasuna neurtzeko eskala desberdinak proposatu dira (Bouillon eta lank., 2013). Gehiengoak arlo fisikoan oinarritu badira ere, gaur egun arlo kognitibo eta soziala ere gehitu dituzten eskalak ere aurkitu daitezke, hauskortasuna ikuspegi globalago batetik begiratzen dutenak (Gobbens eta lank., 2010). Arlo fisikoan oinarritzen direnen artean Fried-en hauskortasun indizea da aurrekari nagusia (Fried eta lank., 2001). Honekin batera, hauskortasun eskala klinikoa, Short Physical Performance Battery (SPPB) eta osteoporosi hausturen ikerketako hauskortasun indizeak ere hauskortasun fisikoan zentratzen dira (Guralnik eta lank., 2000; Rockwood eta lank., 2005; Ensrud eta lank., 2008; Abizanda eta lank., 2012; Bouillon eta lank., 2013). Ordea, Tilburg-en hauskortasun indizeak arlo fisikoaz gain, psikologikoa eta soziala ere kontutan harzten ditu (Gobbens eta lank., 2010).

#### **3.3.10.1. Fried-en hauskortasun indizea**

Fried-en hauskortasun indizea hurrengo bost elementuen arabera kalkulatzen da: pisu galera, nekea, ahultasuna, martxa-abiadura eta jarduera fisikoa (Fried eta lank., 2001)

- **Aztertutako aldagaiak:**
  - **Nahi gabeko pisu galera:**

- **Prozedura:** parte-hartzaileari ea azkenaldian pisua nahi gabe galdu duen galdetu zitzaion (Tilburg galdetegitik aterata).
- **Puntuazioa:** galdera baiezkoa izatekotan, puntu bat egokitu zitzaion.
- **Nekea:**
  - **Prozedura:** parte-hartzaileari ea azkenaldian gehiegizko nekea sentitu duen galdetu zitzaion (Goldberg-en antsietatea eta depresioa galdetegitik aterata)
  - **Puntuazioa:** galdera baiezkoa izatekotan, puntu bat egokitu zitzaion.
- **Ahultasuna:**
  - **Prozedura:** parte-hartzaileari handgrip aparatuaren bitartez eskuko zein besaurreko indarra neurtu zitzaion.
  - **Puntuazioa:** behean zehaztutako GMI-aren baloreen arabera, parte-hartzaileak puntu bat egokitu zitzaion mozketa puntuen azpitik baldin bazegoen.

Gizonezkoak		Emakumezkoak	
GMI (kg/m <sup>2</sup> )	Esku-heltze indarra (kg)	GMI (kg/m <sup>2</sup> )	Esku-heltze indarra (kg)
< 24	≤ 29	< 23	≤ 17
24,1-26	≤ 30	23,1-26	≤ 17,3
26,1-28	≤ 30	26,1-29	≤ 18
> 28	≤ 32	> 29	≤ 21

**1. Taula.** Gizonezko zein emakumeentzako ahultasun muskularraren handgrip mozketa puntuak GMI-ren arabera

- **Martxa-abiadura motela:**
  - **Prozedura:** parte-hartzaileari lau metro ibiltzeko eskatu zitzaion bere ohiko abiaduran. Prozedura zein erabilitako materiala SPPB-ko martxa probako berdinak izan ziren baina honako honetan, parte-hartzaileari metro bateko distantzia eman zitzaion azelerazioa lortzeko. Proba hau bi aldiz egin zen eta denbora azkarrena aukeratu zen.
  - **Puntuazioa:** behean zehaztutako parte-hartzailearen altueraren arabera, puntu bat egokitu zitzaion mozketa puntuen azpitik baldin bazegoen.



Gizonezkoak		Emakumezkoak	
Altuera (cm)	Denbora (s) (abiadura; $m \cdot s^{-1}$ )	Altuera (cm)	Denbora (s) (abiadura; $m \cdot s^{-1}$ )
≤173cm	≥6,1s (0,66 $m \cdot s^{-1}$ )	≤159cm	≥6,1s (0,66 $m \cdot s^{-1}$ )
>173cm	≥5,2s (0,77 $m \cdot s^{-1}$ )	>159cm	≥ 5,2s (0,77 $m \cdot s^{-1}$ )

**2. Taula.** Gizonezko zein emakumeentzako martxa motelaren mozketa puntuak altueraren arabera

○ **Jarduera fisiko gutxi burutzea:**

- **Prozedura:** parte-hartzaileari azelerometro bat jarri zitzaion zazpi egunez egunean ematen zituen pauso kopurua neurtzeko (jarduera fisikoaren balorazioan deskribatuta).
- **Puntuazioa:** parte-hartzaileak puntu bat jaso zuen 5000 pauso baino gutxiago eman bazituen (Arrieta, 2019).

- **Puntuazio orokorra:** aldagai bakoitzeko puntuazio guztiak gehitu egin ziren. Gutxieneko puntuazioa zero eta gehienezkoa bost puntu dira. Hauskortasuna kontsideratzen da hiru puntu edo gehiago lortzen direnean.

**3.3.10.2. Hauskortasun eskala klinikoa**

Hauskortasun eskala klinikoa ebaluatzailearen ikuspegi klinikoan oinarritzen da gaitasun fisiko zein kognitiboa aztertuz (Rockwood eta lank., 2005; 10. eranskina).

- **Prozedura:** ebaluatzaileak iritzi klinikoan oinarritu ziren hauskortasun puntuazioa emateko testak barnehartzen dituen kategorien arabera.
- **Puntuazioa:** testaren gehienezko puntuazioa bederatzi puntukoa da, non sei puntutik gora parte-hartzailea hauskorra kontsideratzen den.

**3.3.10.3. Osteoporosi hausturen ikerketako hauskortasun indizea**

Osteoporosi hausturen ikerketako hauskortasun indizea hurrengo hiru elementuen arabera kalkulatu da: aulkitik altxatzea, energia gabezia eta pisu galera (Ensrud eta lank., 2008).

- **Aztertutako aldagaiak:**
  - **Aulkitik altxatzea:**
    - **Prozedura:** SPPB-ko teste altxatzeko proba erabili zen.
    - **Puntuazioa:** parte-hartzaileak puntu bat jaso zuen minutu batean bost altxaldi egiteko gai ez zenean.
  - **Energia falta:**
    - **Prozedura:** parte-hartzaileari ea azkenaldian energia falta sentitu duen galdetu zitzaion (Goldberg-en antsietatea eta depresioa galdetegitik aterata).
    - **Puntuazioa:** galdera baiezkoa izatekotan, puntu bat egokitu zitzaion.
  - **Nahi gabeko pisu galera:**
    - **Prozedura:** parte-hartzaileari ea azkenaldian pisua nahi gabe galdu duen galdetu zitzaion (Tilburg-en hauskortasun indizea galdetegitik aterata).
    - **Puntuazioa:** galdera baiezkoa izatekotan, puntu bat egokitu zitzaion.
- **Puntuazio orokorra:** aldagai bakoitzeko puntuazio guztiak gehitu egin ziren, non gutxienezko puntuazioa zero eta gehienezkoa hiru diren. Hauskortasuna kontsideratzen da bi puntu edo gehiago lortzen direnean.

#### 3.3.10.4. Tilburg-en hauskortasun indizea

Tilburg-en hauskortasun indizea hauskortasuna ikuspegi fisiko zein psikologiko eta sozialetik neurtzen duen testa da (Gobbens eta lank., 2010). Testak A eta B atalak barnehartzen ditu, non hauskortasunari dagokion eta ikerketa honetan erabilitako atala B atala den (11. eranskina).

- **Prozedura:** Tilburg-en B atala erabili zen hauskortasuna baloratzeko. Testak 15 galdera barnehartzen ditu: zortzi galdera arlo fisikoaren ingurukoak, lau arlo psikologikoaren ingurukoak eta hiru arlo sozialaren ingurukoak.
- **Aztertutako aldagaiak:** testaren jarraibideak erabili ziren arlo fisiko, psikologiko eta sozialak puntuatzeko eta puntuazio orokorra eskuratzeko.
- **Puntuazio orokorra:** gehienezko puntuazioa 15 da, non bost puntutik gora parte-hartzailea hauskorra kontsideratzen den.

### **3.4 Esku-hartzeak**

Ikerketa proiektu honetan partaideak zoriz hiru esku-hartze programetan banatu ziren: Osagai anitzeko ariketa fisikoko esku-hartzea, dual-task esku-hartzea edo oinez ibiltzeko esku-hartzea. Esku-hartzeak hirugarren adineko pertsonekin esperientzia duen prestatzaile fisikoek gidatu eta gainbegiratu zituen eta hiru hilabeteko iraupena izan zuten. Hurrengo lerroetan esku-hartze bakoitza deskribatuko da Ariketen txostenen plantillari buruzko adostasun eredia (The Consensus on Exercise Reporting Template; CERT) jarraituz (12., 13. eta 14. eranskinak).

#### **3.4.1 Osagai anitzeko ariketa fisikoko (AF) esku-hartzea**

Talde honetako partaideek hiru hilabeteetan zehar norbanakoari egokitutako osagai anitzeko AF programa progresibo batean parte hartu zuten astean bi aldiz (12. eranskina). Honetaz gain, parte-hartzaile guztiek ohiko jarduera eta tailerretan parte hartzen jarraitu zuten. Saioak 4-8 parte-hartzaileez osaturiko taldeetan antolatu ziren, eta saio bakoitzak ordubete inguruko iraupena izaten zuen (45-60 minutu). Saio horietan, parte-hartzaileek prestatzaile fisikoak gidatuta, indar eta oreka ariketak gauzatzen zituzten. Indar entrenamenduaren intentsitatea progresiboki handitzen joan zen, arinetik hasita eta intentsitate moderaturarte, American College of Sports Medicine erakundeak gomendatzen duen bezela hirugarren adineko pertsonentzako (ACSM, 2013). Saioak burutzeko eremuak desberdinak izan ziren egoitzaren ezaugarrien arabera. Kasu batzuetan egoitzako gimnasioan burutu ziren bitartean, beste batzuetan erabilera anitzeko gela batean edota egoitzako espazio irekietan burutu ziren saioak. Interbentzioan zehar materiala egoitzan bertan gorde egin zen arrazoi praktikoengatik. Gainera, saio bakoitzean partaideen bertaratzea jaso egin zen, eta esku-hartzea amaitzerakoan parte-hartzaile bakoitzaren bertaratze-portzentaiak atera ziren.

Ariketa fisikoko esku-hartzearen lehenengo astea familiarizazioan oinarritu zen batez ere parte-hartzaileak indar eta oreka ariketekin ohitzeko. Bertan, parte-hartzaileei materiala zein ariketen teknika egokia erakutsi zitzaien. Horretaz gain, ariketa bakoitzean arnasa-hartze egokia ere erakutsi zitzaien, arnasa eustea (apnea) ekiditearen garrantzia azpimarratuz.

Indar ariketen indibidualizazioa gauzatu ahal izateko, bigarren zein zazpigarren asteetan errepikapen maximoaren estimazio testa egin zen (RM1). Parte-hartzaileen segurtasuna bermatzeko, indar maximoa Brzycki ekuazioaren (Brzycki, 1993) bitartez kalkulatu egin zen:

**Brzycki ekuazioa:**  $RM1 = \text{Pisua} / (1,0278 - (0,0278 \times \text{errepikapenak}))$

Proba hau hurrengo ariketetan pisu gehigarriak indibidualizatzeko erabili zen: beso flexioa eta belaunaren flexio zein estentsioa. Intentsitatea RM1-eko % 40-50-tik % 70-ra handitzen joan zen progresiboki interbentzioan zehar parte-hartzaileen tolerantziaren arabera. Hasierako asteetako helburua teknikaren ikasketa eta familiarizazioa izan ziren, horretarako intentsitate arinak aukeratuz (RM1-eko %40-55) (ACSM, 2013). Hurrengo asteetan, ordea, helburua indarraren garapena izan zen eta horretarako intentsitate moderatuak erabili ziren (%60-70). Orokorrean, intentsitatea RM1-eko %5-10 igo egin zen bi astero, indar egokitzapenak finkatzeko asmoz. Honetaz gain, bolumena ere (serie zein errepikapen kopurua) interbentzioan zehar aldatzen joan zen ahalik eta indar egokitzapen handienak lortu ahal izateko.

Ipurmasaileko ariketetan ez zen pisu gehigarrikerik erabili ariketaren konplexutasun tekniko delako eta. Hortaz, ariketa hauek norbanakoaren pisuarekin burutu ziren 10 errepikapen eginaz hanka bakoitzarekin.

Altxa-eseri ariketaren kasuan, RM1-eko proban 10 errepikapen baino gehiago egiteko gaitasuna zutenei saioetan 10 errepikapen egiteko eskatu zitzaizkien altxatzeko fasea ahalik eta abiadura handiengan eginez eta motel aulkian eseriz. Aldiz, RM1-eko proban 10 errepikapen baino gutxiago egiten zituztenei interbentzioko fase bakoitzean RM1-eko portzentaiari zegokion errepikapen kopurua egiteko eskatzen zitzaizkien (adibidez, RM1-ko % 70-ko intentsitateko fasean 6 errepikapen egin ahal zituzten pertsonari 4 errepikapen egiteko eskatzen zitzaion).

Bestalde, orekako ariketen kasuan, mugimenduen konplexutasuna progresiboki handitzen joan zen, ariketa estatikoetatik hasita, ariketa dinamikoak sartuz. Ariketak aldatu egin ziren aldi horretan zehar: pisuaren transferentzia hanka batetik bestera, oztopo txikiekin ibiliz eta zirkuitoak eginaz, besteak beste. Gainera, ariketa bakoitzean zailtasuna handitzen joan zen parte-hartzaileen eboluzioaren arabera (besoen euskarria murriztuz (bi beso hasieran, esku batekin, eta bat ere ez ahal bazen), sostengu-oinarria murriztuz (bi oinak batera, semi-tandem eta tandem posizioak eta hanka baten gainean ahal bazen).

Ariketa guztiak parte-hartzaileen ezaugarrietara (komorbilitateak eta mugimendu ahalmen murriztuak direla eta) moldatu ziren.

### 3.4.1.1 Saioen egitura

Osagai anitzeko AF zein dual-task programetako saioak hurrengo atalean deskribatzen diren faseak izan zituzten:

- **Girotze aldia (5-10 minutu):** mugikortasun artikularreko ariketak goitik hasita (burutik) beheraino (oin puntak)
- Buruaren mugimenduak (10 errepikapen): gora eta behera eta ezkerrera eta eskuinera



**13. Irudia** Buruaren mugimenduak

- **Sorbalden mugimenduak** (10 errepikapen): gora eta behera



**14. Irudia.** Sorbalden mugimenduak

- **Besoen mugimenduak** (10 errepikapen): belauak eta sorbaldak ukituz abiadura handitzen progresiboki



15. Irudia. Besoen mugimenduak



- **Eskuen mugimenduak** (3 errepikapen): 3-5 segunduz pilota bat estutu, lehendabizi esku batekin eta bestearekin eta ondoren biekin indarra eginaz



16. Irudia. Eskuen mugimenduak



- **Hanken mugimenduak (eserita)** (10 errepikapen): eskuin eta ezkerreko belauak tartekatuz igo eta jaitsi



17. Irudia. Hanken mugimenduak aulkian eserita



- **Oinen mugimenduak (zutik)** (10 errepikapen): oin puntak eta orpoak igo eta jaitsi.



18. Irudia. Oinen mugimenduak zutik

- **Atal nagusia (20-50 minutu)**

- **Indarra:** indarraren lanketan hurrengo lerroetan azaltzen diren bi fase nagusi desberdinu ziren. Indar-ariketak banan banan deskribatuta azaltzen dira aurrerago:
  - **Egokitzapen fasean** (1 hilabetean) 3-4 ariketa egin ziren, ariketa bakoitzeko serie 1 edo 2 eginez eta 8-12 errepikapenekin. Serieen arteko atsedenak 2-3 minutukoak izan ziren. Indarra lantzeko, lehenengo asteetan egin ahal zuten indar maximoaren (RM1) % 40-50 erabili zen. Parte-hartzaileen segurtasuna bermatzeko ariketa konplexuenetan ez zen kanpo kargarik (pisurik) erabili. Interbentzioan zehar intentsitate zein bolumena handitzen joan zen parte-hartzaile bakoitzaren arabera.
  - **Indar garapenaren fasean** (2. eta 3. hilabeteak) 5 indar ariketa egin ziren saio bakoitzean, serie 1-2 eginez eta 8-12 errepikapenekin. Intsitatea moderatua erabili zen RM1-eko % 60-70 bitartean.

\*Ipurmasaileko ariketen kasuan, 10 errepikapen burutu zituzten serie bakoitzeko interbentzio guztian zehar. Altxa-eseriko ariketaren kasuan, 10 errepikapen egiteko gaitasuna zutenei abiadura handitzeko eskatzen zitzairen. 10 errepikapen baino guxiago egiten zituztenei, fase bakoitzari dagokion RM-1en ehunekoa eskatzen zitzairen (adb: RM-1en % 40, % 60...).

